



Mari Luz Esteban

«Kapitalismoak
maitasun
pentsamendu
jakin bat
bultzatzen du»



- **Egunkaria auzia** Ateak itxita, zauriak irekita
- **Larrun** Zer nolako ETB behar dugun
- **lhesi** Gernika eta Lumo artean
- **Emakumea lasterketetan** Parte-hartzea bultzatzeko zenbait molde
- **Kartzela** Mendekua gailendu zaio bergizarteratzeari
- **Kultur Maratila** Euskal arte eszenikoen hauspoa Leioan

Bixente ARGIA_{rentzako}



1978. urtean

Bixente Ameztoyk

Zeruko Argiarako egindako

36 azal.

Bilduma honek

Joseba Sarrionandiaren

hitzaurrea darama.

- 36 lamina
- Karpeta
- 210x280mm.



· Prezioa: 20€

· Harpideentzako: 15€



EGIN EZAZU ZURE ESKAERA: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteke Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko otsailaren 24a, 2.358. zenbakia

ASTEKO GAIA

KARTZELAK Mendekuaren garaipena. JOSU CHUECA / 4

PERTSONAIA

MARI LUZ ESTEBAN: «Egoera berrietara egokitzeko gaitasun handia erakutsi du feminismoak». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

EMAKUMEAK KORRIKA Kalean ugari, lehiaketan oraindik urri. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 15

IRITZIAREN LEIHOA

EUROPAR BATASUNAREN (EB) DOGMA, BOSTURTEKO GALDUA MIKEL ZURBANO / 18

EUSKAL DUALISMOA (EDO DUELISMOA) INMA ERREA / 20

BULLYING, BULLYING, BULLYING... EIDER GOIBURU / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Taubira. ITXARO BORDA / 20

ZIRTAK Esperimentu autofikzionala. ANGEL ERRO / 22

ERDIKO KAIERA

KULTUR MARATILA Euskal arte eszenikoen hauspoa Leioan. MYRIAM GARZIA / 23

ANAI ARREBAK: «Dantzarako makina bihurtu nahi dugu taldea». IKER BARANDIARAN / 28

LITERATURA IGOR ESTANKONA, MIKEL ASURMENDI / 30

IHESI GERNIKA-LUMO Gernikako arbola Lumoko haretza zenekoa. MARIJO DEOGRACIAS / 32

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36

ALEA Txokolatea eta bizkotxoak, kultura gozoa. MYRIAM GARZIA / 37

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 38

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 39

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

TERMOMETROA

EUSKALDUNON EGUNKARIA Ateak itxita, zauriak irekita. URKO APAOLAZA AVILA / 41

• Ez ahaztu 2003ko otso-hila. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 43

JOKIN AIESTARAN: «Arabako Errioxako ikasleek euskara ikastea merezi dutela uste dute». SAIOA LABAKA / 44

SANTI BROUARDEN HILKETA Grabazio argigarri bat eta Amedoren interesak. MARTIN VICIOSO CANO / 46

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL Walt Disneyk erakutsi zigun maitatzen 'Gure lagun Atomoa'. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

KARTZELAK

Mendekuaren garaipena

Oso gogoan ditugu Trantsizioko amnistiaren aldeko mobilizazioak. Horiei esker lortu zen euskal preso politiko guztiak kaleratzea. Hurbilago ditugu presoak herriratzeko azken manifestazioak. Borroka hau amaitzeke dago, baina garai bateko amnistiaren xedeak zokoratuta dirudi, eta baita kartzelen aurkako lelo eta jarrerak ere. Institutuzio zigortzaile hori osasuntsu dago. *Presondegiko murrak behera!* aldarrikapenaren orde, kartzela berriak altxa dituzte eskuindar zein ezkertiarrek, gobernu zentralak zein erkidegoetakoek, kontuan izan gabe kartzelen porrota.

| JOSU CHUECA |

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



Iruñeko kartzela zaharreko barrualdeko irudia. 1907an eraiki zen eta 150 preso inguru ixteko gaitasuna zuen.

XX. MENDEAN osatu zen Espainiako egitura penala. Aurreko mendetik zetozen kartzelak bazeuden, baina XX. mende hasieran presondegi zentralak eta probintzialak egin zituzten. Lehendabizikoen artean El Dueso-koa dugu eredu, Euskal Herritik gertuen zegoena. 1907an Santoñan eraikitako espetxe hori La Darsena deitutakoa ordezkatzera zetorren. “Kolonía” gisa hartu zuten, presoek tailerrak, baratzeak eta lantegiak zituztelako bertan.

Urte-kidea dugu Iruñeko espetxea, Pamploñako Presondegi Probintziala izendatua (PPP hizkiekin ezaguna). Europako kartzelen artean hedaturik zegoen egitura panoptikoa zuen, hau da, erdigune baten inguruan gale-riak zituen eta norabide erradialean luzatzen ziren. Iruñekoak bi aldetan eta hiru pisutan zituen ziegak, eta 150 preso inguru ixteko gaitasuna zuen. Antzekoak ziren Donostiako Ondarretakoa eta Bilboko Larrinagakoa, biak XIX. mendean eraikiak eta 1947 eta 1960 arte iraun zutenak, hurrenez hurren. El Dueso bezalako kartzelak Estatuarenak ziren, aldiz Iruñekoak probintziala zenez –aldi berean auzitegi barrutiko presondegia ere bazen– Diputazioak ere parte hartzen zuen kudeaketan, batez ere dirulaguntzetan eta hainbat funtzionarioen izendapenean.

El Duesoz gain, mende hasieran, beste sei presondegi nagusi zeuden Espainiako Estatuan barreiatuak, jadanik epaiturik izan zirenak beraien zigorrak bertan bete zituzten: Ocaña, Cartagena, San Miguel de los Reyes, Alacante, Burgos eta Puerto de Santa Maria. Baina lurralde guztietan auzitegi barrutiko kartzelak ere bazeuden, Iruñekoak, Bilbokoak eta Donostiakoak lez, presondegien sare zabal eta sendoa osatuz.

Ipar Euskal Herrian antzeko egitura penala zuten, baina askoz hedatuagoa. Aurreko mendean eraikitako La Petite Roquette (1836-1974) La Santé (1868) eta Fresnes (1898) presondegi zentralez gain, *Maison d'arret* edo tokian tokiko atxilotze etxeen sarea oso zabala zen. 1946an, esate baterako, horrelako 232 barrutiko espetxe zeuden. Horiez gain, legez eta indarrean izan zituzten 1938ra arte Bagnes zirelakoak –bortxazko lanentzako prestatuturiko deserri leku bereziak– Kaledonia Berrian eta Guyanan. Orduko Fronte Popularrak bertan behera utzi zituen zigor leku horiek, baina 1953 arte ez ziren itzuli azken gatibu deserriratu eta bortxatuak.

Croftonen sistema: graduz gradu bergizarteratzea

Kontraesanak kontraesan, egitura penal horietan ezarri nahi zituzten Europako zigor kodeetan nolabaiteko arrakasta izan zuten ideiak eta helburuak. Mendekua eta min fisikoa saihestuz, teoria modernoek zioten zigorrak gizarteratzeko balio behar zuela. Hala, edozein preso bere ibilbide penalean aurrera egin zezakeen sailkapen jakin baten bidez, ezarritako zigorraldia murriztuz. 1901ean indarrean jarri zuten Espainiako Estatuan Crofton deituriko sistema. Walter Croftonek Irlandan zabalduko sistema penaletik zetorkion izena. 1889an egindako nazioarteko biltzarrean azaldu zuen bere sistemaren filosofia Croftonek, eta azkar hedatu zen Europako gainerako herrialdeetara.

Walter Crofton irlandarrak 1889an azaldu zuen bere sistema: presoak ibilbide penalean aurrera egin zezakeen sailkapen baten bidez. Espainiako Estatuan gaur arte iraun duen graduen egiturak filosofia horretan du oinarria

Espainiako Estatuan, aldaketak aldaketa, gaur arte iraun duen graduen egiturak ere filosofia horretan du oinarria. 1901az geroztik, lau gradutan edo alditan sailkatu zuten presoek ibilbide ideala. Lehenbizikoa: isolamenduarena, hasieran 8 egunekoa zen, geroxeago 3-4 egunekoa bilakatu zuten. Bigarrena: beste presoekin patioan egon ahal izateaz gain, presoak lanak eta ikasketak egin zituztekeen. Hirugarrena: lan arinak egiteko eta kartzelako lan-

postuetan aritzeko balio zuen. Laugarrena: baldintzapeko askatasuna zekarren.


Sistema hori presoak bergizarteratzeko bideratuta dago eta erregimen politiko guztiek onartu dute, nahiz eta oso ezberdin aplikatu. Espainian 1930ean onartutako presondegien araudiak, esate baterako, graduen sistema jaso zuen, eta 1956an berriro zutenean, legislazioak hizkera desberdina erabiliagatik ere, lau gradu-ko sailkapen progresiboari eutsi zitzaion.

Victoria Kent-en amets erreformatzaileak

Gradu bidezko oinarrizko egituran aldaketa nabarmenak izan dira erregimen politikoaren arabera. 1931n II. Errepublikarekin batera egin zen politika penala leuntzeko saiorekin esanguratsuenak. Victoria Kent legelari eta politikari errepublikarra presondegien zuzendari orokor izendatu zuten, eta kartzelak gizatiartu asmoz hainbat lege onetsi zituzten errepublikarrek. Kent izan zen estatu bateko presondegien ardura hartu zuen lehen emakumea munduan.

Gogo beroz ekin zion programa eraldatzaileari. Hasteko, aitzinako garaietatik indarrean zeuden hainbat jokabide, girgiluak, kateak edo gisa bereko burdin loturak debe-

KARTZELAK



Ezkerrean, Santoñako El Dueso kartzelako irudi zaharra; Iruñeko kartzelaren urte-kidea zen eta baratzeak eta lantegiak zituen inguruan, “kolonia” gisa hartu zen horregatik. Eskuinean, La Petite Roquette kartzela Parisen; Europako presondegien artean azkar hedatu zen egitura panoptikoaren eredu garbia zen, 1974an itxi zuten.

katu zituen. Bestalde, kartzeletan laizismoa ezarri zuen, ordura arte zeuden errito erlijio-soen betebeharra kenduz. Kaperauak eta lekameak kanporatu zituen kartzeletatik, neutraltasun erlijiosoa bermatzeko. 70 urte zituzten presoak aske gelditzea izan zen beste neurri esanguratsua. Prentsa zentsurarik gabe kartzeletan irakurtzea ahalbidetu zuen. Eta aurrekontuak igo zituen presoek dieta egokia izan zezaten. Bestalde, Madrilgo Ventas-en emakumeentzako kartzela berri eta modernoa eraiki zezaten tematu zen.

Baina asmo berritzaile horiek gutxi iraun zuten. Victoria Kentek 14 hilabete geroago dimisioa aurkeztu zuen, komunikabide eskuindarren eta kartzeletako funtzionarioen erasoei men eginez. Ondorengo urteetan gauzak nabarmen okertu ziren. Kenten lekuan zuzendari ugari txandakatu ziren eta gehienek bat egin zuten bere ordezkari izan zen Vicente Solek esandakoare-

Victoria Kent errepublikarrak kartzelak gizatiartu asmoz hainbat lege onetsi zituen 1931n. Hamalau hilabete geroago dimisioa aurkeztu zuen eta ondorengo urteetan gauzak nabarmen okertu ziren

kin: “Espetxea ez da jendea bergizarteratzeko instituzioa, seguritatea eta gizaki lanjerosaren isolamendua sustengatzeko baizik”.

Joera errepresiboa areagotu egin zen 1934az geroztik. CEDAk (eskuindarren konfederazioa) eta PRRk (Alderdi Errepublikar Erradikala) gidatzen zuten Gobernua. Heriotza zigorra berrezartzen saiatu ziren eta urte horretako Urriko Iraultzarekin aitzakia galanta izan zuten II. Errepublikaren aurreko urteetako egoerara itzultzeko. Testuinguru horretan, Iruñerriko San Cristobal gotorlekua eta antzeko beste gune asko kartzela bilakatu zituzten, itsasontzi ugari ere egun batetik bestera presondegi masibo eta anker izateko atondu zituzten.

Kartzela frankistak: ankerkeria eta pragmatismoa

Errepublikako azken urte horiek 1936ko Gerrak ireki zuen aro luze errepresiboaren aurrekari zuzenak izan ziren. Aparatu fran-

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

13

ZIALA SARE SOZIALA

FINALAURREKOAK

Martxoak 2:
ATARRABIA
17,30
Kultur Etxea

JULIO SOTO
+
Azken-laurdenetan sailkatutako BOST BERTSOLARI

Martxoak 3:
ETXARRI ARANATZ
17,30
Kultur Etxea

Azken-laurdenetan sailkatutako SEI BERTSOLARI

www.nafarroakotxapelketa.com

Antolatzailea:

kistak berehala indargabetu zuen legislazio errepublikarra, eta 1930eko araudia bete-betean ezarri zien gero eta ugariago ziren presoak. Eztabaida dezente izan da preso kopuruaren inguruan, baina egun ditugun ikerlanak kontuan hartuta eta Urtekari Estatistikoak emandako datuen arabera, 1940an kartzeletako gatibuen kopurua 270.000 lagun ingurukoa zela ontzat jo daiteke. Horrek masifikazio izugarria ekarri zuen espetxeetan. Lekukotasun guztiak bat datoz. El Duesok, 1934an 412 presoentzako lekua zuen, bada 1939an 3.342 preso pilatu zituzten bertan. Aurrerapen ugariarekin diseinaturiko Ventaseko emakumeentzako kartzelan, 450 pertsona egon beharrean, gerra amaitu ostean 10.000 emakume preso zeuden. Antzeko zerbait gertatu zen beste presondegi zentralekin: Puerto de Santa Marian 1933an 253 preso zeuden, 1942an 5.069. Burgosekoa, urte berean, 346 preso izatetik 4.399ra igaro zen.

Euskal Herrian ezagunak dira hiriburuetako kartzelak: Ondarreta, Nanclares, Larriñaga, Iruñea... Presoz gainezka zeuden eta presondegi berriak inprobisatu behar izan zituzten. Ezkabakoa 1936an gerra hasi bezain pronto zabaldu zuten gizonezkoentzat; Saturrarangoak eta Amorebietakoak berriz, 1937az geroztik izan ziren emakume gatibuentzako kartzela. Horiez gain, kontzentrazio zelaiek eta lan batailoiek osatu zuten frankismoaren hasierako urteetako unibertso errepresiboa. Azkeneko hauek urte batzuk igaro ostean desagertu ziren, eta espetxeak zigortzeko egitura nagusi bihurtu ziren berriz ere.

Frankistek bergizarteratzeko politika erabat baztertu zuten. Baina preso kopurua handiegia zen eta berehala arindu beharrean aurkitu ziren. Horretarako, makulu izan zuten hainbat faktore. Alde batetik, 1943 arte eten-gabe aritu ziren presoak erail eta fusilatzen. Epaiketa osteko hilketak –1975 arte luzatu



Iruñeko kartzela 2012 amaierako egun batez eraitsi zuten goizetik gauera. Garai eta borroka askoren testigu izan zen, baina ez zuen presoak bergizarteratzeko balio izan. Haren ordez Iruñean eraiki den kartzela berriak ezaugarri eta filosofia berak ditu funtsean.

zirenak– latzak izan ziren maiztasun eta kopuruari dagokionez. Bestetik, gerra ondorengo lehen urteetan, bereziki 1941-1942 inguruan, hilkortasun tasa ikaragarriak izan ziren kartzeletan. Preso kopurua jaisteko beste modu bat barkamenak ematea edo zigorrak murriztea izan zen.

1947an, gerraren ondorioz giltzaperatutako presoek multzoa arras apalagoa zen jadanik. Helburu hori lortzeko, graduen politika

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA BIZIA

KARTZELAK

erabili zuten, kartzelak azkar arintzeko. “Lanaren truke zigorra libratzea” izan zen orduko leloa. Jose Agustin Perez del Pulgar jesulagunak, Jose Maria Sanchez de Muniainek eta Maximo Cuervok diseinaturiko ekimena izan zen hura, eta helburu bikoitza zuen: alde batetik, erregimen errepresiboa gizatasunez janzteko balio zuen, eta bestetik, baliabide ekonomikoak ematen zizkion presoari, eta batez ere Estatuari, presoan lansariaren gehiengoa Estatuaren kontuan gelditzen baitzen. Baina helburu nagusia zigorra apaltzea zuen, horretarako hainbat neurri erabiliz.

Bereziki preso politikoentzat antolatutako ekimena, atxilo guztiengana zabaldu zuten geroago, eta diktadura frankistaren azken urteetan, gehienbat preso sozialek erabili zuten beraien zigorraldiak gutxitzeko. Preso politikoek berriz, aukera baliatu zuten unibertsitatean matrikulatu eta ikasketak sakontzeko.

Eta gaur egun?

1978ko Konstituzioak kartzelaren funtzio bergizarteratzailea nabarmentzen du 25. arti-

kulan: “Askatasuna kentzeko zigorrek eta seguritate neurriek berreziketa eta bergizarteratzea izango dute jomuga”. Ondorengo urteetan, onartu diren presondegiatako araudiek –1979koak eta 1996koak– teorikoki eskubide horiek sustengatu dituzte, baina bergizarteratzeko eta berreziketarako jardunak lekutan geratu dira.

Parot doktrinak argi utzi du mendekuz kutsaturiko zigor hutsa dela kartzelen rol nagusia. Beste adibide bat ikus dezakegu heziketaren arloan: preso ugari EHUren bitartekaritzarekin burutzen zituzten ikasketak, hura zen euskarri nagusia, bada 2008az geroztik bertan behera geratu da hori guztia, Espainiako Gobernuaren aginduz.

Horrek argi uzten du kartzelen gaineko legislazioa eta benetako praktika ez datozela bat giza legeekin.

Beste indar erlazio batzuek eta mobilizazioek baino ez dute gizateriaren bidea irekiko. Victoria Kentek behin esan zuen: “Gorroto ezazu delitua, erruki zaitetz egileaz”. Hitzok funtsezkoak dira giza eskubideak preso- en artean errotu daitezten. ■

Parot doktrinak argi utzi du mendekuz kutsaturiko zigor hutsa dela kartzelen rol nagusia. Beste indar erlazio batzuek eta mobilizazioek baino ez dute gizateriaren bidea irekiko





18.korrika *aek* KULTURALA

ZUZENENKO ISTANTEAK (musika-argazki erakusketa)	GAZTA ZATI BAT (musika)	BALITZEN HIOA (antzezlanak)
<ul style="list-style-type: none">• O18-24. Ospitalea. Irisarri• O25-M3. Montehermoso kulturunea. Gasteiz• M4-10. Villamonte kultur etxea. Algorta• M11-17. Xenpelar aretoa. Errenteria• M18-24. Kalostrape ostaua. Baiona	<ul style="list-style-type: none">• O17. 18:30. Zinema. Leitza• O24. 18:30. Antzokia. Amurrio• M3. 18:30. Intxaurrendoko kultur etxea. Donostia• M9. 18:00. Herri antzokia. Ordizia• M10. 19:30. Lizeoa. Gernika	<ul style="list-style-type: none">• O21. 20:00. Castel Ruiz kulturgunea. Tutera• O22. 19:30. Unibertsitateko aretoa. Eskoriatza• O28. 20:00. Kresala aretoa. Santurtzi• M1. 22:30. Gurea aretoa. Villabona• M2. 20:00. Lasarte aretoa. Igorre
ESNE BELTZA	PISUKIDEAK (antzezlanak)	PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
<ul style="list-style-type: none">• M15. 22:00 Gaztetxea. Olazti• M21. 22:00. Gaztetxea. Arrasate• M24. Korrikaren azken jaia. Baiona	<ul style="list-style-type: none">• O20. 19:00. Beñat Etxepare antzokia. Gasteiz• O26. 19:00. Arkupe kultur etxea. Aretxabaleta• M6. 11:00/19:30. Bilborock. Bilbo• M7. 20:30. Mendialde eskola. Berrioazar• M19. 20:00. Merkatu zaharra. Erandio• M20. 19:00. Pozokoetxe kultur etxea. Basauri• M22. 19:00. Lanbide Heziketako Eskolako udal liburutegia. Laudio	<ul style="list-style-type: none">• M1. 17:00/19:00. Zine antzokia. Zalla• M2. 16:30/19:00. Pilotalekua. Gernika• M3. 12:00. Frontoia. Kanpezu



Informazio gehiago:
www.korrika.org





FERMIN MUGURUZA

RADAR FM 1999.2013



15 Urte

KANTA BILDUMA

16 kanta + 2 argitaragabeak

80. hamarkadan Kortatu, Negu Gorriak geroago, DUT taldearekin elkarlana,... eta 1998tik gaurdaino Fermin Muguruzak bakarlari gisa ibilbide luzea eta oparoa jorratu du musikagintzan; "Brigadistak Sound System" diskotik, "Asthmatic Lion" azken laneraino.

GARA CD berri hau prezio ezin hobean eskuratzeko aukera eskaintzen dizul!

martxoak 2
GARA + 5⁹⁵ €

GARA irizpidedun irakurleak

MARI LUZ ESTEBAN

«Egoera berrietara egokitzekeo gaitasun handia erakutsi du feminismoak»

Kalean bizi-bizirik zen feminismoa Euskal Herrian 1980ko hamarkadan, beste hainbat herri mugimendurekin batera eta batean. Kalean apaldu egin da orroa eta, egun, zenbait elkarte, instituzio eta unibertsitatetan du habia aldarrikapenak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Zure berri bila jo eta aurkezpen hauxe jo dut begiz: "EHUko Antropologia saileko irakaslea, ibilbidea feminismoan zentratu du, bereziki". Oraintxe urtea, hitz horiekin aurkeztu zintuzten Soziolinguistika Klusterraren Eralan ekimenaren jardunaldietan.

Bai, 1977an sartu nintzen feminismoan, lehenengo jardunaldiak egin zirenean, Leioan. Medikuntza ikasten ari nintzen orduan. Ikasketak haiek bukatu eta, Basaurin, Familia Plangintza Zentroan sartu nintzen, herriko emakume elkarteak sorturikoan. Hortik aurrera, nire ibilbide profesionala eta pertsonala, feminismitik jo dut.

Zer da feminismoa, nola definitzen da?

Mundua eraberritu nahi duen teoria bat duzu, eta praktika. Filosofo feminista bat daukat gogoan. Haren arabera, nahikoa da beraien egoera aldatu nahi duen emakume talde batek –tartean gizonak izan edo ez– aldarrikapen multzo koherente bat egitea, bai teoriarik eta bai praktikan, eta horretarako antolatzea, feminismoa izan dezagun. Sinpleago esanda, gizon-emakumeen arteko harremanak parekatzea. Aukera berdintasuna, nahi baduzu, edo emakumeak edonon.

"Emakumeak edonon". Polita lema.

Berez, emakumeak eta gizonak edonon. Behin baino gehiagotan erabili dugu lelo hori, "Emakumeak edonon". Dena dela, niri "Emakumeak eta gizonak edonon" ere gustatzen zait. Balio du.

Uste nuen gizonaek edonon zeudela: egunkari eta aldizkari azalean eta barruko orrialdeetan, irrati-telebistetan, aginte organoetan...

Ez leku guztietan ere. Zaintza lanetan, adibidez, gutxiago dira. Emakume gutxiago, berriz, politikarien artean. Hor bada talka. Argazkiak oso onak dira parekatze horretaz konturatzeko. Lehengoan, Oscar sarietako hautagaiei begira egon nintzen. Berrehun lagun izango ziren argazkian. Bada, askoz gutxiago ziren emakumeak. Askoz gutxiago. Ez nuen berehalakoan pentsatuko!

Alardea. Larria da oraindik horrela ibiltzea. Urtero errepikatzen den lotsagarrikeria.

Larria da oraindik horrela ibiltzea, bai. Istilua sortu zenean, usteko genuen berehala kon-

NORTASUN AGIRIA

Mari Luz Esteban Galarza (Pedrosa de Valdeporres, Burgos, 1959), Basaurikoa da. Medikuntza ikasketak egin zituen EHU (1983) eta Gizarte Antropologia doktoretza Bartzelonako Unibertsitatean (1993). Familia Plangintzako mediku izan zen lehenengo, eta antropologia irakasle gero. 1998tik hona EHUko Gizarte Antropologia arloko irakasle da, eta, besteak beste, Ikasketa Feministak eta Generoa masterreko koordinatzaile. Liburuak ditu *Re-producción del cuerpo femenino*. *Discursos y prácticas acerca de la salud* (2001), *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio* (2004), eta *Crítica del pensamiento amoroso* (2011), hainbat lanen artean.



MARI LUZ ESTEBAN

ponduko zela. Baina ez. Faktore asko dira jokoan: politikoak, adibidez. Hauteskundeak irabazi nahia eta beste. Gaia asko konplikatu da. Euskal Herrian daukagun paradoxa irudikatzeke erabili daiteke alardea. Gizarte aurre-razalea gara, berdinzalea –oro har, behintzat–, eta bestalde, hor ditugu oraindik zenbait korapilo, askatzen oso zailak.

Feminismoaz galdetu dizut arestian. 80ko hamarkadako feminismoa eta egungoa, berdin manifestatzen dira gurean?

Ez. Izaeran –esentzian– ez da apenas aldatu. Baina gizartearen zirkunstantziak aldatu dira, eta era berean aldatu da feminismoa. Nik esango nuke 90eko hamarkadaren erdialdean aldatu zela feminismoa, gizartearekin batera. Garai hartan askoz kalekoagoa zen feminismoa, kalean ginen beti, beti zen manifestazioa, feminismoaren inguruan, eta beste gauza askoren alde. Orduan askoz errazagoa zen jendea erakartzea, edozeinek esan zezakeen feminista zela. Orain ez da horrelakorik. Feminismoa leku gehiagotan sartu da, erakunde, unibertsitate eta abarretan, baina horrek ikusgarritasuna galtzea ekarri du eta, horrekin batera, “berdintasunaren ilusioa”, batzuek esaten duten moduan.

“Berdintasunaren ilusioa”?

Bai. Gazteek, esate baterako, pentsatzen dute aurreko belaunaldien kontua dela, beraiek ez dutela horrelako problemarik. Horrek alternatibak eta diagnostikoa zaildu egiten ditu. Feminismoa asko dibertsifikatu da: han eta hemen ditugu profesionalak. Instituzioetan profesionalak ari dira lanean, unibertsitateetan ikasketak egin ahal dira... Dibertsifikatzeak feminismoa zabaltzea ekarri du, finkatu egin du, eta ilusio bat sortu du, datu objektiboek ez dute eta berdintasunik badela erakusten.

Gizartea aldatu da, helburu jakin batzuen alde lan egiteko modua aldatu da.

Feminismoari dagokionez –eta oro har–, politika egiteko modua aldatu da. Interesgarria da. Basaurin, adibidez, Marienea daukagu, Emakumeen Etxea, non Berdintasun atala daukagun hainbat proiektuekin, Informazio zentroa, Sexu informaziorako bulegoa, Jabekuntza eskola, Emakume elkarteak biltzeko gunea... Politika egiteko moduak aldatu dira. Politika feminista, eta bestelakoa. Leku gehiagotara ailegatzen gara, baina erreakzioak ere sotildu egin dira, kontrako erreakzioak ere badira. Espainiako ministro Ruiz Gallardónek “Abortua ez” esaten duenean, erraz identifikatzen da arazoa, baina askotan ez da horrelakorik. Legeak emaku-

Naturaltasuna

“Gero eta gehiago publikatzen dira emakumeei buruzko berriak, normaltasun osoz: idazleak, kirolariak, eragileak... Beharbada, zailagoa da politikan, edo beste zenbait esparrutan. Horietan kristalezko sabaia bete-betean dago gaur egun. Eguneroko bizitzan, berriz, gero eta gehiago dira emakumeak, bere eginkizunetan naturaltasunez ari direnak. Ez dute arretarik ematen, gizonak ala emakumeak diren. Normaltasun seinale da”.

Ikasgelan

“Irakaslea naiz, eta batzuetan pentsatu behar izaten dut: ‘Berdin tratatzen ditut emakumeak eta gizonak gelan?’. Eta seguruenera ez, gizonek gehiago hitz egiten dutelako, gehiago parte hartzen. Kasu horietan adi egon behar zara, eta zeharkako estrategiak erabili, neskek ere hitz egin dezaten. Horri erreparatu behar diozu, baina, bestetik, naturaltasunez bizi”.

meen alde daude, baina nola aplikatzen dira? Emakume ikasketak badira unibertsitatean, baina non dira lanean hasteko bideak? Problema berriak sortu dira, aurreikusten ez genituenak. Eta, hala ere, feminismoak egoera berri honetara egokitzeko gaitasun handia erakutsi duela esango nuke.

Zure azken liburuak dakarren zenbait gai berri zaizkit. *Crítica del pensamiento amoroso* horretan maitasun pentsamenduz ari zara.

“Erromantizismo” erabiltzeko joera dugu, eta erabil daiteke. Baina hitz hori erabiltzen dugunean, bikoteak egiteko moduz, harremanez, ari gara gehienetan. Maitasun pentsamendua erabiliz, nik, bikotea sortzeko modu horren atzean ideologia dagoela esan nahi nuen. Mendebaldean zabalduta dagoena da: maitasuna gizakiaren identitatearen erdigunean jartzea, heterosexualitatea gauza zentralizat jotzea, familia eta elkarbizitza antolatzeke era nagusia, ekonomia eta emozioen arteko harremanak...

Bada harremanik bien artean?

Gero eta gehiago aztertzen ari da harreman hori, eta diote kapitalismoak emozioen ideologia konkretu bat, maitasun pentsamendu jakin bat bultzatzen duela. Eleberri edo film arrosen gidoiak hartu, batetik, eta kapitalismoak bultzatzen duen filosofia, bestetik, ikusten da biek antzeko ideia dutela: maitasunaren bidez –edo borondatearen bidez–, dena lortu dezakezula dioten ideia hori, alegia. Kasu batean, maitalea; bestean, arrakasta eta dirua. Baina antzekoa da gidioia. Ekonomia honek maitasun pentsamendu halako bat behar du bere ideologia publizitateko eta emakumeak beraien lekuan mantentzeko. Eman dezagun telebistan ageri diren iragarriak: bikotea dago erdian, erromantzea behar du. Erromantzea, bestalde, merkantilizatuta dago guztiz, abentura, bidaia, afaria eta gainerrako parafernalia kontsumista. Maitasuna subjektuaren erdigunean dago, baina gizartearen erdigunean ere bai. Ideologia konkretu bat da.

Maitasuna erdigunean. Behin baino gehiagotan entzun dut hori, azkenean ez dela maitasuna besterik geratzen.

Maitasuna dela inportanteena esaten dugu, baina batzuetan ez dakigu zertaz ari garen, edo ez gara konturatzen. Justizia, elkartasuna, askatasuna, adiskidetasuna... bigarren mailan uzten ditugu. Gauza guztiak parekatu behar dira. Esan nahi dut: emakumearentzat, askatasuna oso inportantea da, elkartasuna ere bai. Maitasuna bezain inportantea (batzuetan). Bestalde, bikotea –heterosexuala– leku-

rik gorenean jarrita daukagu, beste maitasunik ez balego bezala. Maitasun harremanak askotarikoak direla jakin behar dugu: bikote barrukoa, adiskideen artekoa, familia harremanak... Oreka behar da, guztiak dira inportante, ez bat bakarria.

Zein da maitasun guztiak parekatzeko, orekatzeko edo kontziliatzeko formula?

Ez da formula bakarrik, eta ez da egon behar. Baina ez pentsatu eredu bat bakarria dela. Eredu nagusi bat sortu dugu, eta oso zaila da haren arabera bizitzen: bikote-lagunarekin bizi behar zara, harekin dituzu harremanak, hartaz maiteminduta egon behar zara, harekin seme-alabak izan... bestela ez du balio. Exijentzia maila oso handia da, eta ez du funtzionatzen. Beste era batera antolatuko bage-nu oraingo eredu hori, hobeto funtzionatuko genuke.

Eredu berria sortu behar dugu?

Edota dauzkagun bestelako harremanak erreku-peratu, ikusgarri egin. Adin batetik aurrera, adibidez, adiskide sarea egin duzu, gaixotzen zarenean laguntzen zaituztenak. Gaztetan, bestalde, ohikoa da ikasleek pisua partekatzea... Bigarren mailako formulak direla pentsatzen dugu, "bikotea bilatu bitartekoak", uste dugu, baina balio duten formulak dira. Ikusgarritasuna eta balioa eman behar diegu bide horiei ere, benetan erabiltzen ditugun horiei. Aldiz, zer ikasten dugu: familia nuklearra, aita, ama eta seme-alabak. Maitasun ideologia konkretu baten bidez mantentzen da eredu hori, horrek zoriontsu egingo gaituelakoan. Zorionaren ideologia oso inozoa dago, bestalde, ze ez da posible momentu guztietan zoriontsu izatea. Gainera, "zoriona" bilatze horrek orden sozial jakin bat mantentzen du.

Maitasun pentsamenduak berdin jotzen gaitu gizon zein emakumeok. Mekanismoa aztertze-ra, berriz, emakumeak jotzen du, ez gizonak.

Hitzaldiak egiten ditudanean, askotan galde-tzen dut: "Zer da emakume izatea gaur egun?". Eta zaila da horri erantzutea. Baina, erantzunez, esango genuke emakumea dela pertsona bat, maitasuna bere identitatearen erdigunean jarri duena, edo hobe esanda, jar-tzera bultzatu dutena. Emakumeak besteok maitatu behar ditu, zaindu, haientzako lan egin... Hasteko, behintzat, nahiz eta badiren alderantzizko kasuak ere. Oso zaila da gizon bat topatzea, bakarrik, horri emana bizi dena. Aldiz, pila dira horretan diren emakumeak: "Niretzat inportanteena maitasuna da". Egintzetan ez bada ere, diskursoan. Zure helburua hori bada, bestean menpe zaude,



bestean arreta eta maitasuna behar dituzu zeure buruarekin konforme egoteko. Eta menpekotasun mota hori oso txarra da. Edonorentzat, baina emakumeak bizi du kasurik gehienetan.

Maitasuna, erromantizismoa, ezberdintasuna. Horixe gaiaren inguruan egin duzun hitzaldi baten izenburua.

Maitasun ideologiak mundu jakin bat sortzen du, eta mantentzen. Ordena sozial jakin bat: familia behar da, eremu pribatua eta publikoa, gizonak batean eta emakumeak bestean... Mundu desiguala, ez bakarrik emakumeentzat, baita gizonentzat ere. Filmetan, adibidez, emakumea beti da pobregoa, ilunagoa... Maitasunaren bidez lortzen du arrakasta. Ideologia horrek dio behean dagoenak maitasuna duela zoriontsu izateko, zerbait lortzeko aukera bakarria. Hori kontatzen zaigu, maitasunaren bidez lortuko dugula. Nobela erromantikoetan berdin, emakumeak



Irudia

ARGIAREN bilatzailean “emakume” idatzi eta lehen orrialdeko zenbait sarrera: “500.000 emakume hiltzen da munduan erditzerakoan. Minbizia detektatzeko programa emakume gehiagorentzat. Emakume gutxi eta gaizki irudikatuak zineman. Garraio publikoak emakume sentiarazi ninduenekoa...”.

Feminismo giroan hitz egin izan da horretaz, hitz egiten da, eta hitz egingo da, ziur aski. Biktimismoa azpimarratu dugu. Gizarte mugimenduetan, oro har, horrela jokatzeko da. Euskararen aldeko mugimenduan, euskalgintzan, horixe egiten da. Egiten duguna baino, gaizki dagoena nabarmentzen dugu.

morroi baten bitartez baino ez du lortuko zoriontsu izatea. Oso gauza heterosexuala, bestalde. Esango du batek: “Guztiek ez diote kasu egingo horri”. Beharbada ez, baina oso zaila da hortik eskapatzea alde guztietatik bonbardatzen zaituztenean, abestiek, filmek, publicitateak...

“Feminismoa, euskaragintzarako gogoetatresna?”, iaz egin zenuen hitzaldi baten izenburua. Zer ikusteko dute feminismoak eta euskalgintzak, edo “euskaragintzak”?

Euskaragintza erabili nuen, joko txiki bat eginenez, besterik gabe. Euskaragintza, azken finean, euskararen alde egiten dugun guztiok egiten dugu, hezkuntzatik feminismoaraino. Baina arlo diferenteak balira bezala jokatzen dugu. Duela bi urte Euskal Kulturaren Transmisioari buruzko aditu-titulua egin nuen HUEZIn. Monografikoa egin nahi nuen euskal kulturaz. Ikasle rola hartu nuen, normalean hartzen ez dudana. Hizlariak honetaz edo hartaz ari zirenean, beti egiten nituen feminismoarekiko alderaketak, batez ere militantziaz eta politikez hitz egiten zenean. Konparaketak egiten ari nintzen (baina ez ni bakarrik), etengabe. Halako batean, Nekane Goikoetxearen bidez Iñaki Arrutik Udaltopon jardunaldietan parte hartuko ote nuen, hausnarketa egingo ote nuen esan zidan, eta nik erronkatzat hartu nuen, gogoeta egitea, galderak formulatzea feminismitik euskararen aldeko mugimendura.

Zeuk egin duzun bidea, funtsean. Feminista, euskararen aldeko mugimenduaren partaide. Euskaldunberria zaitugu, Basaurikoa.

Erdalduna naiz euskalduna baino gehiago, dena esan behar bada. 14-15 urte nituela hasi nintzen euskaraz ikasten Basaurin, artean Euskalduntzen metodarik ez zenean. Gaur

Eredua aldatu

“Asko gustatzen zait Marguerite Duras, esate baterako. Berak dio maitasuna, batzuetan, egotea baino ez dela. Baina beti ez duzu ondokoa maite, batzuetan gorroto duzu... Dugun maitasun eredua arindu behar dugula uste dut. Alboan bikotea ez badugu ezer ez gairela ez pentsatu. Adinarekin ere ikasten da hori, eredu horren pisua arintzen da. Gazteak, berriz, okerrago bizi du hori. Heziketa da hori ere, alda daitekeena, beste era batera bizitzeko”.

egun euskaraz ematen ditut eskolak, euskaraz hitz egiten dut semearekin eta lagun askorekin, euskaraz egiten ditut hitzaldi asko, antropologia testuak... Nire bizitzako parte inportante bat euskaraz egiten dut.

Zer zen Basauri euskaraz garai batean, zure 14-15 urtetan, eta zer da gaur egun?

Erabat aldatu da. Txikitari, *la aldeana* deitzen genuen gure etxe aurrean bizi zen emakumea, hila da aspaldi. Euskalduna zen, Arratiakoa nonbait. Ikerketa baten harira, elkarriketa egin nion lagun bati. Basozelain [Basauriko auzoa] bizi zen, denak etorkinak ziren bertan, eta haren etxepean, batzuk *los aldeanos* ziren, euskaldunak. Geroago, jendea ikusi zuenean euskaraz ikasten, negar egiten zuen hango emakumeak. Izugarri aldatu da egoera. Zortzi-hamar familia ziren euskaldunak hemen. Pixkanaka-pixkanaka, jende askok daki euskaraz hitz egiten Basaurin, lagun mordoa daukat euskaraz normal hitz egiten duena.

Lehen eta orain, zuri eta beltz.

Hemen bada euskararen aldeko elkarte bat, Euskarabila, urte asko lanean ari ondoren krisian-edo zegoena. Zer egin zen iaz? Euskararen egunarekin batera, jai erraldoi bat, Lasarte-Orian egiten denaren modukoa: “12 ordu euskaraz”, *Basaurin be bagara* lemapean. Oso ondo irten zen, eta orain zer egiten ote dugun ari gara. Ni txikia nintzenean “12 ordu euskaraz” egitea ezinezkoa zen. Gainera, belaunaldi ezberdineko jendea bildu da modu batera edo bestera lanean.

Elkarrizketa hau ezberdina izango zen emakumezko batek egina izatera?

Ez dut uste. Zergatik, bada? ■



EMAKUMEAK KORRIKA

Kalean ugari, lehiaketan oraindik urri

Martxoaren 3an ehunka emakume bilduko da Donostian Lilaton lasterketan parte hartzeko. Zarauzko Bikoteen Kros Mistoan gizonak eta emakumeak osatutako bikotea derrigorrezkoa da. Fortuna elkarteak emakume taldeak sortu ditu hainbat herritan, Behobia-Donostia helburu. Xedea emakumea kirolera hurbiltzea da, nahiz eta batzuen gustukoak ez diren moduok.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



EMAKUME IDAZLEEKIN bezala gerta dakiguke emakume korrikalariekin: garai batean baino gehiago ageri direnez, hanka sartu dezakegu esanez ikaragarri igo dela emakume korrikalari portzentajea, kalean eta lehiaketetan barra-barra dabiltzala. Egia da mende laurdenean paisaia asko aldatu dela, baina ez gaitzen urrunegi joan, hobe zifrak begiratzea (ikus hurrengo orrialdea), orekarako bide luzea dugula erakutsiko baitigute. Lasterketetan emakumeak ez dira laurdenera iristen.

Lilaton beharrezkoa al da XXI. mendean?

Lilaton taldeak Lilaton lasterketaren 24. korrikaldia antolatuko du aurtan. Helburu bat zuen sorburuan eta helburu bera du orain ere: emakumeak kirolaren plazara jalgitzea. Jai giroa da nagusi, ekintza zehatz eta sinbolikoa da. Urteroko hitzorduan parte hartzeko gogoak ordea,

Zarauzko Bikoteen Kros Mistoan gizonezkoak eta emakumezkoak osatutako bikoteek hartzen dute parte, eta elkarrekin ailegatu behar dute helmugara. Helburua emakumeak korrika egitera bultzatzea da.

emakume ugari kateatu du aurreko hilabeteetan korrika egitera. Lilatonarekin bat egiten ez dutenak ere badira. Gizon batzuek ez dute ulertzen zergatik emakumeentzako lasterketa egin behar den. Probarekin kritiko diren emakumeak ere badira. Ez dute emakumeekin bakarrik lehiatu nahi. Arantza Rojo korrikalaria da, eta Donostiako Fortuna kirol elkarteko komunikazio arduraduna. Elkarteko emakume batzuei entzun die esaten Lilaton lasterketak gaur egun ez diela balio. Rojoren ustez, jarrera hori “normaltasunaren seinale da. Badakigu lasterketa mistoetan emakumeak ez duela irabaziko, baina emakume onenak begira zenbat gizon uzten dituen atzean!”.


90 emakume lau herritan entrenatzen

Fortuna elkarteak antolatzen du Behobia-Donostia 20 kilometroko lasterketa ezaguna.


ANTOLATZALEEK UTZIA

Emakume eta gizonen parte-hartzeen alderaketak


Jose txo Imazen oroimenezkoa (10 km)




Hiru Hondartzetako Krossa (10 km)




Oinezko Lasterketa (15 km)




Donostiako Maratoi Erdia



San Silvestre (8,6 km)



Behobia-Donostia (20 km)



Emakumeak
Gizonak

* Emakumeen ehunekoa

Iturria: Fortuna kirol elkarteak landutakoak

Azken urteotan partaidetza kopuruan jauzi ikaragarria egitea lortu dute; ez ordea nahi adina emakumeen parte-hartzean. 2011n %27. Duela lau denboraldi *Heuk proba ezan* egitasmoa jarri zuten abian, ehuneko horiei gorantz bultzatu asmoz. Hainbat herritan entrenatzaileak kontratatu zituzten astean bi aldiz emakumeak entrenatzeko. Adin guztietakoak, asko sekula korrika egin gabeak gerturatu ziren. 300dik gora zenbatu dituzte. Orain, Fortunak atletismo saila sortu du eta 90 emakume klubeko kide egin dira; Irun, Hondarribia, Tolosa eta Donostiakoak dira. Arrakastak asko poztu ditu Fortunako Arantza Rojo eta Iñigo Etxeberria. Rojoren ustez, “emakumeok buru gainean daramagu zaintzaren kultura eta korrikak ordutegi aldetik eta aukera gehiago ematen digu. Bestalde, bakarka baino taldean aritzen gara”. Eredu gabezia azpimarratu digute biek, elitekoak eta kalekoak. Ohikoena anaiak, osabak edo mutil-lagunak korrika egitea izan da, eta ez alderantziz. “Jada ez da estrabagantea emakumeak bakarrik edo taldeka kalean korrika ikustea –dio Rojok–, ezta lasterketan ere. Lehiaketetako kopuruetan antzematen da Lilatonaren eragina, igartzen da Fortunaren lana, eta orokorrean garaien aldaketa”. Iñigo

Etxeberriak uste du 50 urtetik gorako emakumeak, korrikaren aitzakian, inoiz egin ez dituzten gauzak egiten hasi direla: lasterketa bukatu eta pote bat hartu, egunpasa Gasteizen, bidaia Erromara, Parisera...

Marijose Rodrigue eta Chelo Cambas dira horietako bi. 54 eta 50 urterekin, hurrenez hurren, hasi ziren Fortunaren bidez. Erdi oinez erdi korrika entrenatzen hasi eta Behobia-Donostia egitera heldu dira. Taldearen babesa nabarmendu dute etengabe, eta nahiz eta jada bost urte diren korrika dabiltzala, ez lirateke bakarrik korrika egitera aterako. Lasterka zergatik egiten duten galdetu diegu: osasunez hobeto sentitzen dira, lagunarte zoragarria aurkitu dute, kanpora joaten dira, arazoak bazterrean geratzen dira korrika egiterakoan, asteburuetan zirkulu osoa egiten saiatzen dira: entrenamendua-gosaria-tertulia.

Mutilak neska behar duenean lehiari parte hartzeko

Duela 34 urte, Zarauzko hondartzatik 50 bat emakume atera ziren korrika, alboan bikotekide gizonetzako zituztela. Lilaton taldearen eta Fortuna elkartearen kezka beretik sortu zen lasterketa: gizonak korrika bazebiltzan, emakumeak ez. 50 haiek emakumeak baino neska



umeak ziren, helduagoek lotsak, beldurrak eta mugak gaingitu gabe baitzituzten. Iaz 500dik gora emakumeek hartu zuten parte Bikoteen Kros Mistoan, ondoan gizon bana zutela. Iraixe Aranburu zarauztarra goi mailako kirolaria izan da eta balio handikotzat du proba hori, bere lehen lasterketa izan zen bikotekakoa. Probak domino jokoa eragiten duela uste du: “Mutilak proban parte hartu nahi du, baina badaki horretarako derrigor emakumeren bat behar duela. Beraz, mutilak xaxatuko du emakumea entrenatzeko eta lehiatzeko. Gizonezkoak emakumeak kirolera jauzi egiteko borrokan inplikatu egin behar du, eta hori gustatzen zait. Emakumea oraindik eremu pribatuan dago, ama da... Kirolerako denbora ateratzea luxua da beretzat. Beraz, aldi berean, piezak mugitu behar dira emakumeak entrenatzeko denbora izan dezan. Mutil batek baino gehiagok lan asko egin behar izan du etxean –lehen egiten ez zuelako– bikotekideak lasterketan parte hartzeko”.

Lehia gosea galga ote da?

Korrika egitea ohiko bihurtzen ari bada, zergatik da oraindik lasterketetako kopuruetan alde hainbestekoa? Emakumeek ez ote dute lehia-

Goian, ezkerretik aurrena, Chelo Cambas. Belauniko, eskuinetik bigarrena, Marijose Rodriguez. Fortunak abiatutako Heuk proba ezan egitasmoan hasi ziren duela lau bat urte, 50 urteak beteta. Erdi oinez erdi korrika hasi ziren. Dagoeneko Behobia-Donostia egin dute.

EMAKUMEAK KORRIKA

tzeko gogorik? Aranbururen iritziz, batzuek lehiatu nahiko dute eta beste askok ez: “Agian gustura dago osasuna zainduta eta bere gorputzarekin gustura egonda. Ez nau gehiegi arduratzen Behobian edo Lilatonen zenbat emakume parte hartzen duten jakiteak, garrantzitsuagoa da niretzat astearte batean Zarauzko bidegorrian zenbat emakume ikusten ditudan. Zarauzko emakume taldean 70 bat ibiltzen dira. Giroa, lagunak egitea, etxetik ateratzea, ume zirkulutik irtetea... terapia ederra da, eta horiek bai direla helburu inportanteak”.

Chelo Cambasek eta Marijo Rodriguezek ere lehiari ez diote garrantzi berezirik ematen. Ordea, uste dute gizonak bestela aritzen direla. Gertaera adierazgarria kontatu digu Cambasek: “Merkatuan postua daukat eta Behobia egin nuenean emakumeek galdetzen zidaten, ‘zer moduz egin zenuen, ondo? Ai, ze enbidia!’. Gizonezkoek zenbat denbora behar izan nuen galdetzen zidaten”. Arantza Rojori gaia jarri diogu mahai gainean: kirolean ere oso zabaldua dagoen lehiakortasunak ez al dituen lasterketetatik aldentzen emakumeak. Ez du halako usterik, eta gainera, diskurtso hori arriskutsua iruditzen zaio, emakumeak eta gizonak bi multzotan bereizten dituelako. “Badira emakume ez lehiakorrak, eta badira gizon ez lehiakorrak. Kontua da emakumeak ez duela kirola egiteko tradizioirik izan, eta orain hori gaingitzen ari gara”.

Erratzeko beldur handirik gabe esan dezaugu Hego Euskal Herriko lasterketak inguruko lehiakorrenak direla; alderatu bestela Kataluniakoekin, edo Frantziakoekin. Emakumeak gizonak bezala lehia gogoz direla sinesten dutenek ez diote garrantzirik ematen ezaugarri honi. Alabaina, kontuan izanda emakumeak kirolerako tradizioirik ez duela izan, nork esan lasterketak beste modu batekoak balira parte-hartzea handiagoa ez litzatekeela izango? ■



Ekain berri

Euskal Kulturaren sustraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11



DANI BLANCO

Mikel Zurbano

♦
EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Europar Batasunaren (EB) dogma, bosturteko galdua

EUROPAKO KONTSEILUAK duela hiru aste onartu zuen EBren historian lehen aldiz aurrekontuaren bolumena murriztea. EBko BPGarekiko %1era iristen ez den aurrekontua murrizteak Europan austeritatearen bidea indartsu jarraitzen duela erakusten du, EBren hondamendi ekonomikoa eta politikoa ekarriko badu ere. Finean, EBren batasun eta politika ekonomikoak neutralak direla esaten digute bertako teknokrata eta agintari nagusiek, joko politikotik at daudela alegia. Baina euro-guneak berak eta troikaren irizpideen ezarpenak agerian uzten dute posizio ideologiko liberalak direla nagusi. Izan ere, aipatutako neurri horien emaitza txarrek ez dute hartutako bidean horren temati jarraitzea justifikatzen.

Austeritate politikak oztopo dira bere helburu ofizialak diren egonkortasun makroekonomikoa zein enplegua eta hazkundea erdiesteko. Troikaren parte den Nazioarteko Diru-Funtsaren erretorikak behin eta berriz dio austeritatearekin krisitik irtengo garela. Baina emaitzek beste

zera ekarri dute, arlo publikotik pribaturako errenta transferentzia erraldoia, langabeziaren igoera ikaragarria, enpleguaren prekaritatearen hedapena, eta horren guztiaren ondorioz Espainiako disparekotasun sozialen igoera hain indartsua izan da ezen EBko markak hautsi baititu.

Troikaren politiken defentsa egiten dutenek ez dute aintzat hartzen teoria eta errealitatearen arteko zulo hau. Beren teoria akatsik gabekoa izanik errealitatea bide da oker dagoena. Teoria liberalaren erabilerak dogmatikoa eta interesatua egin da Espainiako Estatuan, besteak beste, lan eskubideak suntsitzen dituen bigarren lan erreforma gauzatu denean krisiaren testuinguruan enpresen bideragarritasuna bermatzeko aitzakiapean. Ikus dezagun adibide batez argudio honen antzutasuna. Estatuan 2011n enplegu osoaren %64 sortzen zuten Enpresa Txiki eta Ertainei Europako Banku Zentralak 2012an egindako inkesta batean erakusten zuten beren arazo nagusiak bezeroak aurkitzea (%35) eta finantzazioa eskuratzea (%27) zirela eta urrutiago agertzen ziren lan kostuak murriztea edo lehia bezalako faktoreak (bik %8na). Gai berari buruzko 2012an CISen beste txosten batek egiaztatzen zuen Estatuko enpresa txikien eta ertainen aburuz finantzazioaren eskura ezintasuna dela arazo nagusia negozio bat martxan jartzeko orduan (elkarrizketatuen %63,8). Aldiz, merkatuen erregulazioa soilik ugazaba horien %19rentzat da traba helburu horretarako.

Beraz, zertarako behartzen du troikak lan merkatuaren erreforma politiken erdigunean ipintzen? Zertarako lana sortzen duten enpresen arazoak larriagotzen dituzten austeritate politikak indarrean jartzen? Areago, zergatik ia baldintzarik gabe finantza erakundeei lagundu diru publikoarekin finantza maileguen iturria irekitzen ez badute? Politika horiek hondamendi soziala dakartela bistakoa izanagatik eredu sozioekonomikoaren eraldaketa sakona bultzatzea da liberal berrien xedea. Bosturteko galdua hamarkada bihurtzeko arriskua gordina izan arren. ■

Troikaren parte den Nazioarteko Diru-Funtsaren erretorikak behin eta berriz dio austeritatearekin krisitik irtengo garela. Baina emaitzek beste zerbait diote

zerbait diote, adibidez 2010ean NDFak iragarri zuen Greziak 2011n %2,6ko hazkunde negatiboa izango zuela eta 2012an krisitik aterako zela %1,1eko hazkundearekin. Errealitateak erakutsi du Greziako BPG %6,9 eta %6 gutxitu zela hurrenez hurren bi urte horietan. Espainiako Estatuan zein Euskal Herrian indize ekonomiko eta sozial gehien emaitzak inoizko mailarik okerrenetan agertzen dira. Noiz eta bost urte bete direnean krisia lehertu zenetik eta hiru, austeritate politikak gordinen nozitzen ditugunetik. Besteak beste, bi lan erreforma, pentsioen erreforma, bankuen lege berria, defizitari buruzko urrezko arau konstituzionala eta aurrekontu murrizketa gogorrak indarrean ipini dira artean. Neurri multzo horiek







DANI BLANCO

Inma Errea

ITZULTZAILEA ♦

Euskal dualismoa (edo *duelismoa*)

ORAINGOAN bertsolarietara eta idazleei egokitu zaie, baina euskal lurretan ohikoa dugu gure baliabide ez oso ugariekin sokarekin bezala tiraka ibiltzea: dena, edo ia, bitan zatitzen da hemen, politikan, kulturen edo euskalgintzan. Joera hori dugu, eta onartu beharra dago. Apika, zergatik gertatzen den aztertu behar-ko genuke (protagonismoen ego puztuak, ezinikusi inoiz ez aitortuak...), eta, batez ere, zertara eramaten gaituen.

Oraingoan, esan bezala, bertsolarietara eta idazleei egokitu zaie duelua, eta horren berri jakitean Xenpelarren eta Iparragirrenen arteko hura etorri zait gogora, musika eta guzti. Ez bainuen ideiarik kontu honi buruz, Juan Luis Zabalen *Nabi edo nabi ez, haurride* artikulua irakurri arte (*Berria*, 2013-01-31). Ez nau harritu, euskal duelurako zaletasunaren hamaikagarren adibidetzat jo dudalako, baina ez nuen espero. Eta, nire oharkabea, albisteak ez dit eman atsegin (disgustu handirik ere ez, bestalde).

Izan ere, nik biak maite ditut, literatura idatzia eta bertsolarietara, biak iruditzen zaizkit interesgarri aldika, eta biekin gozatzen dut, plazer ematen badidate: bertso guztiak ez dute lortzen, ezta liburu guztiak ere. Eta hori normala da, inork ez baitu zertan izan gogo-

ko munduan interesgarri jotzen den oro.

Agian horregatik ez dut oso ongi ulertzen duela honen nondik norakoa, eta aizun samarra (dantzen antzera, aretokoak?) dela pentsatzera ere iritsi naiz. Ulertzen ditut argudioak: bi diziplina direla (nahiz biek ala biek hitzak, euskarazko hitzak, dituzten lantegi...) eta horietako batek ikuskizun kutsu hartu duela zenbait kirolen antzera (ez al zuten hitzaren kirol nazionala izendatu aspaldi?). Eta uler dezaket bi eremuetako jokatzailerik elkar hartuta egon beharrean zeharka baino ez egitea so elkarri. Haatik, elkar begitan hartzen hasteak euskaldunok hain kutuna dugun elkarren arteko auto-boikot arraro horren itxura hartzen du, berriro ere.

Eta beti eta gauza guztietan bat etorri beharra aldarrikatzen duten horietakoa ez banaiz ere –besteak beste,

herri honetan, batasunak aldarrikatu ahala bitasunak egiten trebeak garelako–, kostatzen zait irudikatzea zer bateraezintasun klasek galarazten ahal digun aldi berean aurrera egitea letra idatzietan eta hitz kantatueta (antzerkia eta bertso-paperak barne). Ez bada *egoak* hegoak astintzen hasi direla. Edo ezinikusiak ikusgai bilakatzen. ■

Ez dut oso ongi ulertzen duela honen nondik norakoa, eta aizun samarra (dantzen antzera, aretokoak?) dela pentsatzera ere iritsi naiz



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Taubira

BADAKIT Iparraldeko euskaldun haurri-deek ez dituztela Parisen gobernatzen duten sozialisteriak biziki maite, arrazoi –agian zuzen...– ezberdinengatik. Demokrazia ere zerri askara botatzekoa dute: sobera ele perpauzetan, aita larderiatsuek gure hezteko baliatzen dituzten ordena edo manu zehatzen aldean. Alta...

... Azken asteotan Frantziako Legebiltzarrean izar ibili da Christiane Taubira, Guyane departamenduko diputatua, sexu bereko pertsonetara ere ezkontzaren alorra zabaltzeko. Eskuineko hautetsi zakarren irain oldeei buru egin du, aldi aldika haserre, harritu, irriz, Karibeetako poetak

aipatuz, isilik, beti hor, beti gogor, Ogoño muturreko harri beltza bezain tematsu. Ederki eraman du aspaldiko Simone Veil edo Elisabeth Guigou haien lekukoa jendaldearen eskubideen emendatze bidean urrats batez urrunago. Abortua, 35 ornak, PACS edo gaur ezkontza homosexuala ardatz, emakume zainartak dira –nolakoak orde!– hemiziklo testosteronatuaren erdira bidali!

Urrezkoa, otsailaren 12a:

hemendik aitzina mugaren bi maldetako lesbianok eskubide –ia– berdina dizkinagu. Ezkontzara al gaitun? ■





Eider Goiburu ♦
LAHIA-NAHIA SEXOLOGIA
ELKARTEKO KIDEA

Bullying, bullying, bullying...

BADARAMAZKIGU urte batzuk hitz hori entzuten. Ikastetxeetan lan egitean, ikasleen artean entzun dezakegu “ez dakit nori bullying egiten zioten...”, barre algaren artean. Guraso batzuen artean ere entzun dezakegu: “Hori beti gertatu den zerbait da. Guk ere gure artean joka eta isekaka ibiltzen ginen, baina normaltzat hartzen genuen eta listo. Ez genion izenik jartzen eta inork ez zuen traumarik gaur egun bezala”.

Baina, ba al dakigu zertaz ari garen bullying hitza erabiltzean? Esaten dugu bullyinga ikasle batek behin eta berriz eta denbora luzez irainak, bazterketa, larderia psikologikoa eta/edo oldarkortasun fisikoa bezalako ekintzak jasaten dituenean bere eskola-kideren batuegandik.

Hau ez da tontakeria bat, badago bere buruaz beste egiten duenik eraso horien ondorioz. Horregatik, bullyingaren inguruan asko ikertu da azken urteotan, ikastetxeetan irakasleek formakuntza jasotzen dute, horrelako egoerak ekiditeko edo esku-hartzeak egiteko protokoloak daude. Baina noizbait pentsatu al dugu zein diren eraso horien edukiak? Zergatik diren gazte horiek erasoak? Zein dira gehien erabiltzen diren irainak?

Bada, puta eta marikoia dira irain nagusiak, eta bi hitz horien sinonimo guztiak. Kasu asko eta askotan, gazteek beren genero rola betetzen ez dutelako dira erasoak. COGAM (Colectivo de Lesbianas, Gays, Transexuales y Bisexuales de Madrid) eta FELGTBek (Fede-

ración estatal de Lesbianas, Gays, Transexuales y Bisexuales) 2012an argitaratutako ikerketaren arabera, ikastetxeak ez dira LGTB (lesbiana, gay, transexual eta bisexual) gazteentzat espazio segururak, eskoletan eraso asko dago homofobia eta transfobiagatik, nesken portzentaje altu batek eta mutilen portzentaje altuago batek indarkeria psikologikoa eta fisikoa jasaten du bere desioaren orientazio edo/eta identitate sexualarengatik eta hezkuntza sistemak ez dio arazo horri erantzun egoki bat ematen. GEHITUk (Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Elkarte) 2010-11 ikasturtean Donostiako 609 gazteekin egindako ikerketaren arabera, gazteen %82,92k norbait bere desioaren orientazio edo identitateagatik iraintzen ikusi dutela diote, %40,72k arrazoi horientzat beraien ingurukoak baztertzen ikusi dute eta %11,99k jipoien ikusle izan dira.

Diskriminazioaz hitz egiten dugunean hiru maila bereizi ditzakegu: arrazionala edo sinesmenak, emozionala edo sentimenduak eta jokabidezkoak. Bullyingaren prebentzioaz hitz egiten dugunean, jokabidezko mailan bakarrik esku hartzen dugu baina benetako arazoak hor dirau. Hau da, erasoak ekiditen ditugu, baina ez ditugu erasoak sortzen dituzten ideiak eta sentimendu negatiboak deuseztatzen eta hau egiten ez dugun bitartean ez da bullyingik desagertuko. ■



IRITZIAREN LEIHOA



2013
botxongilloak, lpuin kontalariak, magia, antzerkia...
Bilboko Haur Kultur Zirkuitua | 2-8 urte

- 02/26 EIDABE ANTZERKIA
18:00etan Begoñako udaltegian
- 02/27 ANE MONNA, OSKOLA ETA KARRAMARROI
18:00etan Karmen aretoan
- 02/28 ERIZ MAGOA
18:00etan Bilborock aretoan
- 03/02 TTR TEATRO
11:00etan Deustuko Bidarte Udaltegian
- 03/05 LUR KORTA
18:00 Begoñako udaltegian
- 03/06 ZIRIKA ZIRKUS
18:00etan Karmen aretoan
- 03/07 KIKI ETA KOKO
18:00etan Bilborock aretoan
- 03/09 XABI LARREA
11:00etan Deustuko Bidarte udaltegian
- 03/12 BIHAR TXOTXONGILO TALDEA
18:00etan Begoñako udaltegian
- 03/13 TXAN MAGOA
18:00etan Karmen aretoan
- 03/14 IRRIEN LAGUNAK
18:00etan Bilborock aretoan
- 03/16 HIPO ETA TOMAX
11:00etan Deustuko Bidarte udaltegian
- 03/19 BEGO ALABAZAN
18:00etan Begoñako udaltegian
- 03/23 ZIRIKITAKO BUI
11:00etan Deustuko Bidarte udaltegian





DANI BLANCO

Angel Erro

♦ IDAZLEA

Esperimentu autofikzionala

BASO BATEAN zuhaitz bat erori eta inor ez baldin badago hor entzuteko, zuhaitzak zarata ateratzen du? George Berkeley filosofoak egin zuen galdera. Orain ez dut gogoan –kontsultatu beharko nuke– berak zer erantzuten zuen, ezta erantzuna frogatzeko zer bide proposatuko zuen ere. Nik ez nuke jakinen zer erantzun, besteak beste, gaurko teknologiak (arbolaren lur jotzea telebistako zirkuitu itxi baten bitartez ikusarazi/entzunarazi edo, bertan inor egon gabe, balizko zarata dezibeliotan neurtu lezakeenak) eta literatur teoriak (Harreraren Estetikak, esaterako, dio idatzitakoa ez dela existitzen irakurlerik gabe) kontraesanean diruditelako.

Beste galdera bat daukat nik: norbaitek kontu guztiz hutsal batean, inora ez doan eta ezertan eragiten ez duen kontu ez egiaztagarri batean, benetan gertatutakoa gabe, beste gauza bat kontaktzen badu, gezurra esaten ari da? Nire ustez, argi eta garbi, ez. Hala dela demostratzeko, Iñigo Astizek *Baita hondakinak ere* poema liburuan bezala, esperimentu bat eginen dut, eskura dudan egoera bat adibidetzat hartuta:

Adiskide batek zerbait hartzera joateko deitu dit eta nik azkenean etxean gelditzea erabaki dut atzeratuta eta entrega-epez kanpo dudan artikulu bat (ez hau) idatzi behar dudalako. Hori esanez neure burua zuritu nezake, baina aurreko batean horixe bera esan nionez sermoia bota liezadake edo pentsa lezake neure burua nabarmendu nahian nabilela, berak ere idazten duelako eta inoiz ez zait holako maratilikin etorri. Horregatik, beste aitzakia bat, ez erabakigarria baina, halere, egia ere badena, jarri diot. “Ezker oinean kolpe handia hartu dut, behatzak ubelduta eta guzti dauzkat. Bainuontzitik ateratzen ari nintzela, irrist egin eta berogailua jo dut indar guztiaz. Txinpartak ikusi ditut”, esan diot eta berak,

hemofilikoa naizela jakinda, espero bezala, bota dit hobe dela kolpea zaindu dezadala.

Telefonoa eskegi eta neure baitan barre egin dut. Adiskideak ez du jakingo, ezingo du inoiz jakin, ezta inork ere ez, behatzetako ubeldura ez dudala horrela egin, baizik eta oinutsik, aipamen baten bila, apal altu batetik liburu potolo bat hartzera joan eta oin gainera erori zaidalako. Nik orain hemen aipa nezake zehazki zer liburu den odoluria eragin didana. Aitor nezake Jostein Gaarder-en *El mundo de Sofia* izan dela, baina, ez nuke inork jakitea nahi nire filosofiako ezagutzak gazteentzako liburu dibulgatzaile batetik datozela, alegia, Berkeleyrenak eta abar nondik ateratzen ditudan. Eta gainera, demostratzen ari naizenez (eta horixe da autofikzioaren iruzurra- ren oinarria!), norberak bakarrik dakizkien kontuetan ez dago ez egia ez gezurra esaterik; istorioa hobeki biribiltzen duena da irizpide bakarra.

Dena den, orain dator froga definitibo. Huts egin nion adiskideari aurreko testua pasa diot, benetan bainuontzian irristatu ote nintzen ala liburu oinean erori ote zitzaidan (eta kasu horretan, zein?) detekta ote dezakeen.

“Bai, biak dira gezur”, erantzun dit, “eta ez bakarrik hori, testuko gainerako guztia ere gezurra da: egun horretan parrandan atera ginen eta idatzi beharreko artikulu atzeratua hau da. Joder, tio, testu autorreferentzial batean sartu nauzu!”.

“Nola jakin duzu?”.

“Zu etxean gelditu? Ez dago hori sinetsiko zuenik. Autofikzioak ere bere mugak ditu”.

“Zer begi zorrotza duzun. Hurrengo artikulua eskaini diezazudala merezi duzu

gutxienez”.

(Iñigo Astizi dedikatuta) ■



Antton Olariaga



Euskal arte eszenikoen hauspoa Leioan

Duela urtebete, Artedrama antzerki taldeen plataformak, eta Leioako kultur aretoak, Kultur Leioak deituriko hitzarmena sinatu zuten. Honi esker, Artedramak erresidentzia iraunkorra du Leioako aretoan, eta euskal sorkuntza sustatzea eta bultzatzea helburutzat jotzen da.

Elkarlan honen fruitua da, hain zuzen, Kultur Maratila, euskal sorkuntzari eta euskara hutsezko lanei eskainitako astea. Aurtengoa bigarren edizioa dugu.

| MYRIAM GARZIA |

ANA LOPEZ, Kultur Leioako zuzendaria dut telefono hariaren beste aldean, otsailaren 28tik aurrera egingo den Kultur Maratila dugu hizpide. Euskara hutsezko lanak erakustea eta euskal sorkuntza bultzatzea du xede ekimen honek, eta horretarako “ahalik eta programa zabalena eta anitzena ekarri nahi izan dugu geurera”. Programa orekatua eta berria eskaini nahi dute.

Kultur Leioak badu bere marka, bere lerro estetikoak, eta Maratila bat dator lerro horrekin. Euskal sortzaileak zertan dabilen erakutsi nahi izaten da programa honetan. Ana Lopez hitzetan, ez dute gaztelerazkoek bezainbeste jende biltzen, “eta horregatik saiatu behar gara publikoa sortzen, euskarazko antzerkira joateko jendeak ohitura har dezan ahaleginak egiten. Eskaintza egitea ezinbestekoa da, geure sorkuntza delako, eta apustuak nabarmenago izan behar du, bertakoa delako. Ez da erraza, ordea, publiko berria erakartzea”.

Artedrama antzerki taldeen plataformarekin batera egindako ekimena dugu Kultur Maratila. Dejabu, Le petit Théâtre du Pain, Sivom Artzamendi eta Huts Teatro antzerki taldeak biltzen ditu Artedramak. Azken talde horretako arduraduna dugu, hain zuzen, plataformako bozeramalea: Iñigo Ibarra. Alegia, Ander Lipus antzezlea. Kultur Leioan dute egoitza. Lipusek argitu digunez, “Aulestiko topaketan esperientzia zabaldu nahi genuen Leioara –Artedrama Laborategiak asteburu osoko topaketak egiten ditu urtean behin, Aulestin, antzerkigile eta antzerkizaleei zuzenduta—. Jakina da errealitate soziala ezberdina dela, baina hala ere, euskal sorkuntzari egokitutako astea





Horman Poster taldeak *Iragan perfektua* estreinatuko du otsailaren 28an.

antolatu nahi genuen Kultur Leioan, arte eszenikoen jaialdia edota topaketa, edo gisako zerbait”.

Aurrerago aipatu bezala, bigarren edizioa dugu aurtengoa, eta antzerkiak gain musika, bertsoak eta performantzak ere programatu dira. Lipusek dioskunez, “Herri batzuetan euskarazko programazioak ez du publiko handirik ekartzen. Gurea, burugogorkeria da, eta espero dugu, apurka-apurka Leioa publiko euskaldunez betetzea. Oraindik lan handia egin beharra daukagu, baina tira, horrelakoa da gure ofizioa. Batzuetan arrakasta lortzen dugu eta besteetan arrastaka gabiltza”.

“Gurea burugogorkeria da, eta espero dugu apurka-apurka Leioa publiko euskaldunez betetzea”

**Ander Lipus,
Artedrama plataforma**

Programazio anitz zabala

Aurtengo Kultur Maratila otsailaren 28an hasiko da, eta estreinaldi batek jarriko du abian, *Iragan perfektua* obrak. Horman Poster Bilboko antzerki taldearen azken lana da. Nahiko programa zabala da, arte disziplina anitz aurkezten dituen. Euskaraz pentsatu eta sortutako proiektuak dira. Lipusen ustez, “proposamen estetiko ezohikoak dira kasu batzuetan, eta horrek progama interesgarria osatzen du. Hau da, disziplina askoren arteko lotura eta jokoak ekarriko ditu”.

Iragan perfektua antzezlanak “argazki album bat da. Iraganeko argazki sorta bat mahai batean bota eta banan-banan jasota, bakoitzari buruz zerbait gogora ekartzeko ariketa”, azaldu digu Horman Poster taldeko kide Matxalen de Pedrok. “Irudien koreografia bat dela esan daiteke, 70eko hamarkadako irudi sorta baten dantza. Gure memoriako artxibo historikoa osatzen duten argazkiekin harreman jolasti bat eduki nahi genuen eta nolabait elkarrizketa historiko bat ireki ikusleekin. Berez, gure sormen lanaren arabera gorputz eta mugimendu mota bat proposatzen dugu, ikuslearekiko harreman jakin

bat sortu ahal izateko. Kasu honetan, objektu garrantzitsuenak historiako irudiak direlako, gure akzioek eta gorputzek haiei ematen diete leku nabarmenena”.

Maratilan estreinatuko den antzezlan honetan memorian eta errepresentazioaren eremuan murgilduko da Horman Poster taldea. “Memoriaren espazioa kolektiboa da batez ere. Gogoratzen dugunak esangura kolektiboa edo soziala izaten du bere jatorrian. Aldi berean, gogoratzen dugun horrek gure etorkizunaren itxura ezagutzeko balio digu. Kontatutako gauzek eta berreskuratutako aztarnek iraganaren puzzlea osotzen dute. Memoria pertsonalaren eta

historiaren bertsio ofizialaren arteko marruskadura oso interesgarria da. Historia ofizialak ere gauza asko ahazten ditu. Batzuk nahita eta beste batzuk nahi gabe”, argitu digu Matxalen de Pedrok. Bere ustez, Kultur Maratila “euskarazko arte eszeniko garaiki-deak bultzatzeko aukera oso ona da”.

Metrokoadroka kolektibok ere bere azken lana taularatuko du martxoaren 1ean, *Poza: Zergatik dantzatzzen duten bosniarrek?*. Bilboeszenan egindako lanaren emaitza da azken hau, BAD jaialdian *work in progress* edo erabat amaitu gabeko lan gisa aurkeztu zena. Badirudi, Oier Guillan, Asier Sarasola, Ander Fernandez, Idoia Beratarbide eta Jabi Barandiaran biltzen dituen taldeak bukatutzat jo duela pozaren eta edertasunaren inguruko lan hau. Hitza nagusi, poesia sarritan protagonista, eta beste disziplina batzuk ere taularatuko dira antzezlan honetan, hala nola, irudia edo musika.

Egun berean, Andoni Egaña bertsolariak eta Xabier Lizaso musikariak *Bi arreba* izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute. Chopin piano-jotzailearen eta Xenpelarr bertsolariaren arteko enkontra da *Bi arreba* berezi honen istorioa. Musika klasikoa eta bertsoak batzen ditu.

Martxoaren 2an, ikuskizun guztiak izango dira Kultur Leioa aretoan. Rouge Eléa antzerki taldeak *Biutz* obra antzeztuko du. Ceuta (Espainia) eta Marokoren mugan dagoen

Rouge Eléa antzerki taldeak *Biutz* eskainiko du martxoaren 2an, eta Ez Dok Hiru bikoteak *Lingua Nabajorum*, martxoaren 3an.

pasabide baten izena da Biutz. Mugak, ezagunak zein ikusenzinak, izango ditu hizpide Rouge Eléa taldeak. Gauez, berriz, Anariren kontzertua izango da gozagai.

Ez Dok Hiru ere bere azken lana eskeini-ko digu martxoaren 3an: *Lingua Nabajorum*. Euskararen historia azalduko digu obra honek, Patxo Telleria aktoreak argitu digunez: “Bi txoriburuk kontatua da. Hizkuntza nola sortu den azaltzen dugu, hastapenetik (soinuak, onomatopeiak), gaurdaino (batua).



INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegratzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

ogiaren egia **Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin**

Galparsoro OKINDEGIA
Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



Historia istorioz istorio kontatzen dugu, garai desberdin bakoitzean, neolitikotik hona, gertaera sozial edo politiko baten kariatz, hizkuntza sortzea eta bilakatzearen prozesua kontatzen dugu. Baina ez larritu, modu erabat azientifiko eta inmoralean kontatzen dugu. Ideia bat egin dezazun, Euskaltzaindiak ordain sari bat eskaintzen dio hilik ala bizirik harrapazten gaituenari”.

Azken taularatze honetan, dena den, bila-kaera txiki bat izan da, Ez dok Hiru taldeko kideak azaldu digunez: “teatralizazio gehiago dago, aurrekoetan ez bezala pertsonaia desberdinak antzezten ditugu. Aurrekoetan Patxo eta Mikel bezala agertzen gara beti, hasi eta bukaera arte. Monty Python-en ikutua dauka, nolabait esateko”.

Maratila bezalako ekimenei ondo deritzo Patxo Telleriak. “Gure esperientziaren arabera, ekitaldiak ekimen orokorrago baten barruan kokatzen direnean, alegia festibal, jardunaldi edota aste kulturaletan, jendearen erantzuna nahiko ona izaten da, ekitaldi soil eta isolatu bat denean baino hobea. Publizitate babes handiagoa dago, eta jendeak informazio zehatzagoa jasotzen du”.

Zentzu horretan, onuragarria dela dio. “Maratila, euskara hutsez programatua izaki, apustu handia da, Leioan baita. Ezin daiteke antzeko kasuekin konparatu, esate baterako Azpeitiko Jaurdunaldiekin. Haiek ere euskarazko antzerkiaren erakusleihu dira, baina zonalde ia erabat euskaldunean egiten dira.

Goian, Andoni Egaña bertsolariak eta Xabier Lizaso musikariak ondu duten obra: *Bi arreba*. Musika klasikoa eta bertsoak batzen ditu.

Leioako errealitate linguistikoa bestelakoa da. Apustu ausartagoa da berez”. Telleriaren ustez horrelako ekimeneak denbora behar dute sendotzeko, eta denboran irauteko aukera ematen bazaio, urtez urte indartuko dela ziur da.

Prezioa 6 eta 8 euro artekoa da sarrerako. Krisi garaietara egokitutako prezioa da. Bestalde, Bonomaratila eskuratzeko aukera ere bada, eta horrek, 6 ikuskizunak 30 euroren truke ikusteko aukera emango digu. Ander Lipusen ustez, “Bada alderantzizkoa pentsatzen duenik ere, alegia, garestia dela. Eta krisia?! Antzerkia beti krisian da. Hala ere, erakargarria da eskaintza”.

Sortzaileak kudeatzaile

Baina, noiz bilakatu dira antzerki taldeak eta sotzaileak kultur kudeatzaile? Ander Lipusek eman digu erantzuna: “Ofizio bat maite duzunean, eta ofizio horretan gabeziak ikusten dituzunean, ezinbestekoa bilakatzen da, esparru zabalago batean lan egitea. Nire kasuan hala da behintzat. Etengabe berrasmatzen ibili beharra daukagu. Antzerki lan bakar batean aktore gisara aritzea, egun, Euskal Herrian, ez da posible. Bestalde, egungo sistemak ez dio antzerki taldeen arteko erlazioari laguntzen. Gure kasuan, taldeekin erlazio zuzena izaten ahalegintzen gara. Gure izaerak badu Iparraldeko Le Petit Théâtre de Pain eta Harri Xuriren dinamekiarekin zerikusia”.

Hortan dago, antza, euskal antzerkigintzaren gakoa. Proiektu apalak dira gehienetan,

formatu txikikoak. Patxo Telleriari azken urte hauetan eskaintza ugaritzen ari dela iruditzen zaio, “baina formatu txikiko ikuskizunak dira ia beti. Ez dago industria teatrala obra handi eta potenteekin arriskatzeko, eta hori penagarria da. Euskal antzerkiak beharko lukeelako noizean behin arreta erakartzen duen muntaia totemikoren bat, gure autoestimua eta prestigioa haizatzeko”.

“Azpiegiturak, batez ere, ikaragarri aldatu dira. Duela hogeitau urte imajinaezina zen gaur daukagun antzoki publikoen kopurua”

Patxo Telleria,
aktorea



Publiko berria erakarri, sortu eta bultzatu beharra dago. “Esango nuke –dio Lipusek– herri bakoitzean ezberdina duela egoera, eta leku edota espazio bakoitzak bere nortasuna duela, edo beharko lukeela. Leku batzuk alternatiboagoak dira eta beste batzuk instituzionalagoak, baina argi dago euskal kulturak leku guztietan egon behar duela”.

Hala ere, Patxo Telleriaren ustez, euskal antzerkigintzak izan du bilakaera: “Azpiegiturak, batez ere, ikaragarri aldatu dira. Duela hogeitau urte imajinaezina zen gaur daukagun antzoki publikoen kopurua. Hauxe da, agian, aldaketarik nabarmenena. Orokorrean oso poztekoa da, baina batzuetan oreka falta nabarmena da. Herri batzuetan antzoki soberra haundiak egin dira, eta hain handiak izaki, mantentzeko ere garestiegiak eta ia ez da dirurik geratzen programaziorako.

Bestalde, programatzaile eta banatzaileen artean profesionalizazio handia gertatu da, eta hau ere bi alde dituen txanpona da. Bere

Metrokoadroka kolektiboak azken lana taularatuko du martxoaren 1ean: Poza: Zergatik dantzatzen duten bosniarrek? Goian, lan horren aurkezpen irudia.

gauza onak ditu, “baina funtzionarizaziorako” joera ere nabarmenegia da, hitzaren zentzurik txarrean. Beste arlo batzuetan, aldiz, ez da batere aurrera egin. Nahiko deigarria da herri honek ez izatea Antzerkirako Heziketa arauturik, ez Antzerki Nazionalik, lehen aipaturiko “obra totemikoak” egin ahal izateko.

“Kultur erresistentzia etengabeen bizi garen unetik, euskararekiko konpromezuak handiagoa behar du izan, eta denona”, ondorioztatu du Telleriak, “asko borrokatu behar da, baina tira, argi dago, gure hizkuntza gutxiagotu honetan gauzak zailagoak direla batzuetan. Bitxia da erdal munduaren jokaera. Galdera bat eta bera egiten digute euskara hutsean denean: ‘eta gaztelaniaz ez duzue egingo?’. Gaztelaniaz denean, berriz, ez zaie galdera bururatzen: ‘eta euskaraz ere ez duzue egingo?’”. ■



2. finalurrekoa
otsailak 23, larunbata, 18:00etan, Aramaioko Kultur Etxean



Manex Agirre Paula Amiburu Andere Amolabengoa Ander Sotozabal Zigor Erbeita Unai Mendibil
Gai-jartzailea: Olatz Santolides

Antolatzailea



Babesle Nagusiak



www.arababertsozale.org



ERDIKO KAIERA

ANAI ARREBAK
MATXET ALTOLAGIRRE

«Dantzarako makina bihurtu nahi dugu taldea»

2010 bukaeran kaleratu zuten maketak haize freskoa ekarri zion musika eszenari. Disko luzea ondu dute orain (Bonberenea Ekintzak, 2012), lehen lan hura baino landuagoa. Grabazio ederrak dira, baina zail dute altolagirretarren zuzenekoetan aurkitzen den grina eta bizitasuna islatzea.

| IKER BARANDIARAN |

MATXET ALTOLAGIRRE pasaitarra ezaguna da oholtzetan, talde probokatzaileak gidatu dituelako beti ere; esate baterako Jousilouli hardcore-metaleroa eta NaizRoxa, muturreko doinuaren eztanda ekarri zuena. Hori dela eta, Marga arrebarekin –eskarmentu handikoa bera ere– eta beste anai-arreba batzuekin proiektu dantzarriagoa plazaratu zuenean, harridura sortu zuen. 80ko hamarkadako disco estiloa, post-punka, funkya, latinoa eta beste zenbait joera bere egin eta energiaz lantzen ditu Anai-arrebak taldeak. Halaxe erakarririk dituzte zaletuak, eta dantzan jarri dituzte guztiak.

Dantza egitea da salbazioa?

Seguru aski ez, baina jendeak ondo pasatzen badu eta bere kezkek ordubetez ahazten baditu, ez da lorpen makala.

Zer falta zaio Euskal Herriko musika eszenari?

Agian jende berri gehiago, azken urteotan betikoak gabiltza gauza ezberdinekin bueltaka. Baina zorionez badago salbuespenik; adibidez, Glaukoma taldea asko gustatzen zaigu.

Bat baino gehiago harrituko zen NaizRoxatik Anai Arrebak taldera dagoen jauziagatik. Zer esango zenieke?

Beti izan dugu horrelako zerbait egiteko gogoia, musika gogorra asko maite dugu baina dantzarako musika ere gustukoa dugu.

Nolatan jaio zen taldea? Zerk bultzatuta?

Aspalditik nerabilkien buruan, duela zortzi bat urtez geroztik. NaizRoxa sortu genuen, ordea, eta dantzarrien ideia alde batera utzi



“Musikaz gain, beste zerbait ere eman behar zaio jendeari”.

nuen. Bost urtez erruz eman genituen kontzertuak eta atsedean hartzea erabaki genuen. Orduan heldu nion berriro ideia hari.

Margak eta biok odolean daramazue taldean aritu eta agertokietan azaldu beharra. Eta abiatzen dituzuen proiektuen alde dena ematea. Aitarengandik datorkizue?

Aitarengandik eta osabarengandik. Oso gaztetan hasi ziren biak musikan, instrumentuak jotzen eta soinu teknikari bezala. Hainbat talderekin jardun zuten. Loquillo, Barricada, Paralisis Permanente, Alaska...

Egiten duzuen egiten duzuela ere, energia handiko musika ateratzen zaizue beti.

Bai. Iraganak pisu handia du gure izaeran, gure lehengo taldeek hardcore, punk eta metala lantzen zuten, eta hori nabaria da kon-



tzertuetan. Esan izan digute disco estiloa egiten dugunean ere rockeroak garela.

Eszenaratzea, aurkezpena eta xehetasunak oso zaintzen dituzue. Hain garrantzitsuak dira?
Orokorki, gero eta gehiago lantzen dira ezugarri horiek: janzkera, diskoaren tratamendu fisikoa eta gainerakoak. Jendeari musikaz aparte zerbait gehiago eman behar zaio.

Zuen demoak, inondik inora espero ez zelako, sona handia eman zizueten.

Ez genuen halako harrera espero eta iazko urtea benetan oparoa izan da. Jaialdi handietan ere jo dugu: EH Zuzenean, Donostiako Aste Nagusia, Gasteizko jaia... Pozik gaude.

Arrunt bestelakoa da Anai Arrebak zuzenean entzutea, diskoarekin alderatuta. Erabat bereizi beharreko kontzeptuak dira?

Grabatzeko garaian argi genuen disko boro-bila eta polita egin nahi genuela. Ahotsen tratamendua zaindu eta dena garbi entzutea nahi genuen. Baina zuzenean indar handiagoa daukagu, nahiko punkiak gara.

Egia da Anai Arrebak taldea estilo ugaritako musikazaleak harrapatzeko gai dela?

Gure musika jende guztiari zuzendua da, eta askotan ilusioa egiten digu, adibidez, musika gogorra entzuten duen jendea hurbiltzen zaigunean, eta normalean horrelako musikariki entzuten ez badu ere, taldea asko gustatu zaiola jakinarazten digutenean.

Zer behar du talde on batek?

Berri Txarrak eta Zea Mays taldeen arrakasta, adibidez, ez da kasualitatea: musika landua egiten dute, eta hitzak ere bihotzera heltzeko modukoak dira. Hori da garrantzitsuena, abesti onak egitea, beren osotasunean.

Sintetizadoreak erabat ahaztutako tresna mirargarriak dira? Etekin handia atera dakieke?

Marga eta Matxet, erdian. "Iraganak pisu handia du gure izaeran, eta hori nabaria da gure kontzertuetan. Esan izan digute disco estiloa egiten dugunean ere rockeroak garela".

Jakina. Traste zaharrak erabiltzen ditugu, 80ko hamarkadako sampler ziztrin bat, adibidez. Zuzenekoetan material horrekin ikusten gaitzuten txundituta gelditzen dira denak.

"Munduak gezurra diotsu zioten ehortzitako gure heroi handiek" abesten duzue. Heroi asko duzue?

Musikalki denetarik entzuten dugu, baina taldea hasi genuenean New Yorkeko punka eta elektronika nahasten zituzten taldeak genituen buruan: Lcd Soundsystem, The Rapture, Head Automatica... Eta niri Mike Patton, Iggy Pop, Henry Rollins eta James Brown gustatzen zaizkit.

Zuen istorioko Txanogorritxok beldur dio otsoaren deiari?

Bai, beldur dio, baina kontatzen dugun istorioan Txanogorritxu nahiko triste dago. Alai eta zoriontsu balego, otsoari ukabilkada emango lioke ziur.

Maketatik diskora alde dago. Taldea bareago dago? Esperimentatzeko gogo handiagoa duzue?

Maketa rockeroagoa zen agian, nondik gentozen islatzen zuelako. Diskoa dantzagarriagoa da, rock ukituak ditu. Dantzarako makina bihurtu nahi dugu taldea, horixe da seguruenik hartuko dugun bidea.

"Iluntzean A bikoitzaren itzalak distiratsen duelako". Zer gertatzen zaizue gauaz?

Gaua polita da, gaztea zarenean gauak magikoak izaten dira. Askotan hitz egiten dugu gaueko istorioez.

Zergatik aukeratu duzue Bonberenea?

Etxekoak bagina bezala hartzen gaituzte, edozertan laguntzeko prest daude beti, eta egiten duten lana izugarria da. Anai-arrebok ere piromanoak gara! ■





Helduen literatura | POESIA

Jon Mirande, olerkaria
Txomin Peillen
Euskaltzaindia, 2012

Koordenatuak

MANIAKO-DEPRESIBOA, idaztea sendagai zuena, zuberotar protestatzaileen sokakoa. Jon Miranderen poemak eurak besteko baliotsua da liburu honetan Peillenen GPSa, haren hitzaurrea, autorearen bizitza eta iturri poetikoen azterketa. Christian eta Alain Angelié-Mirande, idazlearen ilobek, Pablo Aristorenarekin batera, Miranderen eta haren familiaren biografia xehea idatzi dute gainera. *Jon Mirande, olerkaria* bilduma definitibo da, euskaraz eta frantsesez emana, *Oianone* idazteko kapaz izan zenaren argazki osoa eta deformatu bakoa eskaintzen diguna. XX. mendeko olerkari handi honen inguruan gauza asko esan da. Hemen, ostera, ez da alferrik hitz egiten: “Paristarra zelako, olerkaria euskarazko frantses idazlea egin nahi izan dute, baina aipamen bat edo bestez kanpo, sinbolisten eta Verlainen, Baudelairen eragina ez da batere argi, gainera berak artikulu bat idatzi zuen euskal erromantismo tragiko baten alde; halere, heren obra sailkatu gaitza da”.

Definitu ezina definiturik geratzen da honenbestez. Eta hitz ere egiten du, 1953ko otsailean Radio-Euzkadin Andima Ibiñagabeitiak egindako elkarrizketaren bidez (*Olerkariarenean*, Gernika aldizkariaren 23. zenbakian plazaratua izan zena). Lehen euskal poeta modernoaren berbak dira, gaur egun onarturik dagoena lehenengoz planteatu baitzuen: “*Ritmu nabari ta ritmu izkutu bereziko nituke nere olerkietan. Erbes-teko poesi-eskola ageri zaizkigu azken aldi auetan. Eta nik ere orrelako berri zerbait egin nahi nuke gure euskeraz. Ez dut basterteratu, egia, ots-kidegoa zearo nere poemetik, eta poesi zenbeit kontsonante bidetik adalatu ditut. Baina nerez maiteago dut itzen barne-ritmuan eraiki poesia*”.

Horiek denak irakurri ondoren plazera da Txomin Peillenen hautatutako berrogeita bi poemetan galtzea, askazia maitatu eta hein berean gorrotatuaren misterioetan, basoetan, mamuen antzeko itsasontzi eta nostalgietan. Poeren itzultzaile honen barrokismo eta dekadentzia hori suertatu zait beste behin gozoa, berria eta tristea. Izan ere, Miranderen ordena eta harmonia haize kontrakoak dira, baina ederrak. Edertasun muturreko horrek arrazoia bera lausotzen du, galdu egiten da bat plazerean eta oinazean, bata zein bestea bereizi ezinik, goiza heltzerik nahi ez: “*Sorginak itzali/ dantzak amaitu-ta/ oilarren azali/ ezagun goiza da*”. ■

Igor Estankona



Gaur zortzi
Carmen Gisasola
Alberdania, 2012

Gure historiako istorio gaurkoa

ANDONI Kordobako espetxean dago. Euskalduna izaki, preso, bistan da. Ezezagun baten gutuna jaso du gaur. Emakume batek sinatuta dago. Alaba da gutun horretako subjektua edota protagonista. Iraia du izena. Ihes egin du etxetik. Askatasunaren aldeko haizeak bultzaturik ihes egin du. Konpromiso politikoak akuilaturik. Iraiak ez du aitarik, ez zaio ezagutzen bederen.

Belaunaldi baten erretratua da kontakizuna. Zehatzago esanda, borroka armatuan engaiatutako bi belaunaldietako bi militanteen esperientziak batzen dituen istorioa da. Gure historia garaikideko istorioa, egungo historiaren istorio arrunta. Ama batek, bakartasunean idatzia, eta espetxeko bakartasunean bizi den preso baten begietatik irakurria edota narratua. Gure herrian azken mende erdian ezagutu dugun gertakarietako bat. Gogorra eta gordina, eta horregatik arrunta.

Gaur zortzi gertatu zen, eta bihar zortzi gerta liteke. Borroka armatuan konpromisoa hartu zuen Carmen Gisasolaren lehen narratua da. ■



Mikel Asurmendi

EUSKAL KULTURAREN URTEKARIA 2012

- **Alberto Barandiaranen urteko kronika**

"Soziolinguistika, berriro"

- **2012an nabarmendu ziren proiektuak**

Hezkuntzako mobilizazioak, Xora filma, crowdfunding-a, Xiberoko Ikastolen Ikasle Ohiek Maskarada bere gain hartzea...

- **ARGIAko adierazpen biribilen bilduma**

- **Joerak, aurrera begira**


- Patxi Baztarrika hizkuntza politikaz
- Joxe Rojas teknologia berriez
- Ander Gortazar kulturarik gabeko kulturaz
- Iñaki Martinez de Luna euskararen erabileraz
- Aitor Etxabe hezkuntza krisiaz
- Mikel Irizar tokiko hedabideen talaiatik

- **Arloz arloko kronikak eta datuak**

- **Euskal Kulturaren Aurkibidea**



Eskura ezazu
(00 34) 943 37 15 45
denda@argia.com



Euskal Herria ezagutuz

GERNIKA - LUMO (BIZKAIA)

Gernika aldera bizitzera etorri nintzenez gero, hiru bider igoko nintzen Lumora. Gernikako arbolaren jatorrizko jabea izan zen Lumoko elizatea, harik eta 1882. urtean Gernikak bereganatu zuen arte.

Lumoren gainean, ordea, ezer gutxi dakigu.

Testua eta argazkiak:

| MARIJO DEOGRACIAS |



San Pedro eliza, Lumon.

Gernikako arbola Lumoko haretxa zenekoa

HALA AITORTU ZUEN 1999an alkate zenak, Gernikazarra Historia Taldeak egindako liburuan: “100 urte ere igaro dira eta, dudarik ez, ‘hiritarrek’ [gaztelerazko bertsioan ‘villanos’] hartu dute euren esku gure udalerraren ospea eta sinbolismoa. Beraz, sasoi delako uste dugu Elizateari dagokiona emate-

ko, bere jatorriaz, ohiturez, izaeraz, biztanleez... ikertzeko eta ezagutzera emateko”.

Nire asmoa prosaikoagoa da: Gernika-Lumo aldera osteratxoa egitera datorrenari, Gernikako arbolaren jatorrizko lurretatik pasieratxoa egin dezala proposatzea. Hainbat bide daude aukeran;

azkarrena, Andra Mari eliza osteko errepidetik autoz igotzea, baina horrek ez luke meriturik, ezta? Ostera zirkularra egitea da proposamena, eguerdirako Boliña zaharrean “kroks” edo “ferrerrotxer” gozoak jateko –halaxe deitzen diete tabernarietxeko kroketa goxoei—. Berbalagunen bitartez izan nuen

ibilbidean gidari lanak egin dizkidaren berri. “Berak biderik ez bada-ki, ez dago joaterik”, esan zidaten, eta harekin egin nuen Gernika-Lumo-Kosnoaga-Gernika ibilbidea, hamar kilometroko Gernika-Lumoren historia laburra.


Gernika eta Lumo, bost mende elkarki mokoka

Gernikako hiribildua 1366ko apirilaren 28an sortu zuen Bizkaiko konde On Tellok, Lumoko elizateari lurra kenduta. Ordurako, Gernika legez ezagutzen ziren Oka ibai ondoko portuko lurra bereganatuak zituen On Tellok. Harrezkero, eta 1882ko urtarrilaren 8ra bitartean, bi udalerrien artean auziak, iskanbilak, kereilak eta liskarrak ohikoak izan ziren, tartean, Lumoko tabernen ordutegia murrizteko Gernikako tenientearen desioak eta astelehenetako plazaren ingurukoak eragindakoak. Izan ere, sasoi hartan asteleheneko plaza Lumon egiten zen, eta Gernikako saltzaileak hara joaten ziren erosle gehiago egoten zelako; horrek, jakina, zergak Lumorentzat izatea eragiten zuen eta hortik Gernikako autoritateen haserrea. Orain bezala, orduan ere dirua lehentasunezkoa zen agintarientzat.

Tirabira haiek 1882an amaitu ziren, tartean Madrilgo Gortetara gutun bana bidalita. Bata Gernikako hiribilduak, bategitearen aldeko 301 sinadurarekin; bestea Lumoko elizateak, 340 biztanleren ize- nean, bategitearen kontrakoa. Azkenik, 1882ko urtarrilaren 8an Madrilgo Gortetik elizatea eta hiribildua elkartzea adostu zuten. Harrezkero Gernika-Lumo da hiribilduaren izena eta alde zaharrea, gaur egun oinezkoena den kaleetako batek Ocho de enero izena dauka. Eta jakina, Lumokoa zen haritza, Gernikako arbola da.

Lumorantz

Sasoi batean Lumoko Udaletxea izan zen eraikinetik oso gertu dago arbola zaharra, Batzar Nagusien parean dagoen Klarisen komentu ondoan. Gune hori nahikoa ezaguna da. Guk beste abiapuntu bat



aukeratuko dugu: herrigunetik Bilbora norabidean ateratzeko Juan Kaltzada kale osoa zeharkatuko dugu, herriaren hasierako Lurgorri auzora arte, eta han Santa Luzia auzo berrira sartuko gara. Santa Luzia ermita ostean hartuko dugu Lumora eramango gaituen bidexka, Zallo baserri auzoan barrena doana.

Gernikako hiribildua 1366an sortu zen. Harrezkero, eta 1882ko urtarrilaren 8an biek bat egin zuten arte, liskar ugari eduki zuen Lumorekin

Mikiene errekaostaren albotik, Done Jakue bidea ezkerretara utzita, bideari jarraituko diogu. Domeketan jende asko ibiltzen da paraje horretatik, erraza baita oso, paseoa. Zallo auzoaren behealdeko baserri artetik gorantz egingo dugu “Errigoiti-Mungia” seinaleria iritsi arte. Eskumako bidea hartuko

dugu Bidaguren-Artze baserrietarantz. Hala, pixka bat gorago Arribaltza baserri parean, BI-3213 Errigoitiko errepidea zeharkatuko dugu pareko aldapa hartzeko, San Pedro auzorantz. Puntu horretan atzera begiratu gero, Durangaldeko mendi guztiak guri begira daudela konturatuko gara. Merezki du Arribaltza baserrietik dagoen paisaiari argazkia egitea.

Aldaparen amaieran Amillagako San Martin ermita paretik igaroko gara, eskumaldetik doan 173 BI-PRari segika. Pinudia zeharkatu beharko dugu behearantzko bide batetik, eta basotik irtendakoan lehenengo ikusiko dugu aurrez aurre Lumo, baina oraindik tarte batez ibiltzen segitu beharko dugu hara iritsi baino lehenago. Ordorika baserriaren parean, ezkerredera sartzen da honaino ekarri gaituen PRa. Tarte batean marka zuri-horiak segituko ditugu, baina tarte laburra izango da. Izan ere, Amillagako ermitatik Lumorako bidexka horrek kilometro bakarra dauka. Hortaz, berehala gara Lumon.



Santa Luzia ermita, ibilbidearen hasiera.



Pinudi bat zeharkatu ostean agertuko zaigu begien parean Lumoko herria.



Gernika, Kosnoagatik ikusita.

Kosnoagako begiratokia

Behin Lumora iritsita, tentazioa izango duzue herriko iturritik (1884koa) behera egiten duen errepeida (BI-4215) hartu eta zuzenean Gernikara jaisteko. Haatik, gure gidariak proposatu digun bideari jarraituko diogu, eta iturri ostetik gora egiten duen Errigoitiko Madalen auzorantz joko dugu, inguruetan dagoen begiratoki natural bakarrerenetakora ailegatzeko: Kosnoaga, Aixerrota legez ere ezaguna inguruan. Hamar bat minutuko kontua da hara heltzea: behin Bastegieta baserrira iritsita, errepidean esku-matara dagoen bidexka hartuta Urdaibaiko paisaiatz gozatzeko Kosnoaga gaina segituan dago. Muino txikia da, telefonía antena jartzeko erabili dutena. Borda bat ere badago bertan, eta ate bi mendi gainera bidean. Zabalduz gero, bueltan itxi, ganaduak hanka egin ez dezan –guk ahuntzak baino ez ditugu ikusi–.

Han gainera ikusiko dugu Oka ibaiak paduran egiten duen zeharkaldia, Laidan ito bitartean. Foruko harrobia ezagutuko duzue parez pare, Foruari gerizperik egiten ez dion arren. Ibaiaren beste aldean Kortezubi eta Gautegez-Arteaga daude, Sanmigeleko Ereñozar atzean dutela. Mendiari buelta eman ez, Santa Eufemi gaina ere ikusiko dugu Aulesti inguruan, Lea-Artibai eskualdean. Eta berehala gure azpian Gernikako hiribildua nola hazi den sumatuko dugu. Ibilbidea hasi dugun Santa Luzia eta Lurgorri ditugu azpian, urbanizazio ikaragarri handia eta herriko gazteek bizileku dutena, hantxe eraiki baitira Gernikako etxe bloke berri guztiak.

Erretereria auzoa

Aixerrotari buelta osoa eman ostean hasiko dugu beheranzko bidea. Lehen utzitako errepidera itzuli bezain laster, eskuma aldera eta beherantz hasiko gara, Foruko harrobia ikusten den leku parean. Bi bidexka daude, baina guk zabalena hartuko dugu. Horrek eramango gaitu Gernikatik Lumora igotzen den errepide nagusira (BI-4215). Aurretik, baina, Gernikaren bestaldea ikusteko aukera izango

dugu: Erreenteria auzoa, Oka ibai gaineko zubitik ezkerrera dagoena –1540. urtean eraiki zuten lehenengoz harrizko zuba—. Antza denez, haraino iritsi zen Nafarroako Erreinua, muga-etxe edo aduana zegoen lekuraino; horixe ziren erreenteriak, aduana funtzioa betetzen zuten etxeak eta lonjak. Gaur egungo hirigunean egon zen lehenengoa, baina burdinolen eraginez ibaia nabigaezin bihurtzen joan zen heinean, eta ingurua padura bihurtzen, atzerago eramán behar izan zuten; hala, gaur egungo Erreenteria auzo parean eraiki zen Gernikako hirugarren erreenteria, sasoi batean Ajangiz herriarenak izan ziren lurretan, Portu kalearen bestaldean.

Frankismoko galdeketa haiek

Ajangiz Gernikari lotuta egon zen 1940tik 1991ra. Orduan atzera independente izatera igaro zen, baina Erreenteria auzoa Gernikan geratu zen. Ez zen inolako galdeketarik egin horretarako. Bai, antza, Arratzu, Murueta, Forua, Kortezubi eta Nabarnizko udalerriak Gernikari lotzeko. *Apuntes para la historia de Gernika-Lumo* liburuak dioenez, 1966ko abenduaren 26ko BOEn argitaratu zen Gernikaren zabal-kundearen dekretua. Erreferendumean herritarren %89k parte hartu ei zuen, eta ia guztiek (%95) alde bozkatu zuten. Ez egiezue oso kontuan hartu, Francoren denboretan izan zen eta.

Kontua da Erreenteriak Gernika-Lumo izaten segitzen duela, ez ordea gainontzeko herriek. Eta guk jada egin dugula gure osterat



Lumoko iturria, 1884koa. Hemen abiatzen da Gernikara jaisten den bidea, nahiz guk, oraingoan, Kosnoagarakoa hobetsiko dugu.

txoa. *Cuatro bancos* izenaz ezagutzen den lekuan bat egingo dugu Lumotik behera datorren errepide nagusiarekin, eta handik behera, berehala, Santa Maria parrokia ikusiko dugu Europako parkea zeharkatuta eta Txillidaren eskul

turak pasata. Handik behera zuzenean egingo dugu Gernikako erdigune bihurtu den Merkurio iturriraino, merezitako “ferrerortxer” errazioa jateko. On egin! ■



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea



Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Puzzlea

Koka ezazu atal bakoitza dagokion tokian eta Ricardo Aronskind ekonomialari eta ikerlariaren esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


2			5	4				
3		5	6		2	4	8	
	1				8	2		
7			4		1			
8	2	1		6		7	5	4
		9		2				8
		4	5				9	
	5	7	2		1	6		3
			4	3				1

Zaila

	3			6	9	7		
6		5	7					9
	9		5					1
				2	6			
		8				2		
				3	7			
7				5		8		
	8			7	3		5	
		2	6	1			4	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.-Nafarroa Behereko udalerrria.
- 2.-Kaikuak.
- 3.-Baliorik gabea.
- 4.-Kausitu aditzaren erroa.
- 5.-Kapar.

Kike Amonarrizen umorea

Bizilagunek zer esango?



Udako arratsalde sargori jasanekin batean, Mikelek Arantxari:

– Hau beroa! Ezin dut gehiago! Balkoira larru bizirik ateratzeko gogoia ematen dit.

– Atera zaitez, bada! –Arantxak, di-da.



Lipar batez hausnartu eta gero, Mikelek:

– Eta zer pentsatuko dute bizilagunek balkoira larru bizirik ateratzen banaiz?

– Zer pentsatuko dute, bada? Diruagatik ezkondu naizela zurekin!

Soluzioak

Erraza

2	7	8	3	9	5	6	1	2	4	8	7
3	9	5	6	1	2	4	8	7			
4	1	6	7	9	8	2	3	5			
7	6	3	5	4	5	1	2	9			
8	2	1	9	6	3	7	5	4			
5	4	9	1	2	7	3	6	8			
1	3	4	5	7	6	8	9	2			
9	5	7	2	8	1	6	4	3			
6	8	2	4	3	9	5	7	1			

Zaila

2	3	4	1	6	9	7	5	8
6	1	5	7	8	3	4	9	2
8	9	7	5	4	2	6	3	1
9	7	8	3	2	6	5	1	4
4	6	8	9	5	1	2	7	3
5	2	1	3	7	4	8	6	9
7	4	9	2	3	5	1	8	6
1	8	6	4	9	7	5	2	3
3	5	2	6	1	8	9	4	7

Puzzlea: "Latinoamerikak berrehun milioi biztanleko merkatu erre-serba du, ez da ekonomia integratua izan, baztertuak daude, eta hori lotsagarria da".

5x5:
1. Banka. 2. Aluak. 3. Nultua. 4. Kausi. 5. Akain.

Txokolatea eta Bizkotxoak, kultura gozoa

HILEKO LEHEN ASTEARTEETAN egi-
ten da Txokolatea eta Bizkotxoak
ekimena, Bilboko Barrenkale kale-
ko Modesto tabernan. Proposamen
ezin hobea neguko arratsalde ilun
hauetarako, aspaldiko lagunak ikusi,
kulturaz gozatu eta, izenak dioen
moduan, txokolate beroa eta bizko-
txoak jateko aukera, euskal sortzaile
baten esamesak entzun bitartean.
Hiru sortzaile elkartu dira ekimen
honetan: Ane Zabala aktore eta
kazetaria, Goizalde Landabaso
idazlea eta Fernando Perez kultur
kudeatzailea.

Emanaldiaren aurretik agertu
naiz, Fernando Perez aurkitu dut
tabernako atarian. “Gaur, arropa
eskegitzeko matxarda da sarrera”
esan dit, bat eskura emanaz. Aurre-
ko emanaldian gaztainak eman
zituzten sarrera gisa, gaztaina bat bi
euroren truke. Tabernan kontsumi-
zioa doakoa da gero. Goizalde Lan-
dabasok azaldu dit sarrera berezi
hauen zergatia: “Ez gara kultur
elkarte bezala eratu, ez dugu diru-
laguntzarik eskatu nahi, paper ugari
bete behar da horretarako. Zerbait
egin nahi genuen, baina inolako ira-
bazi asmorik gabe”.

Modesto taberna barruan, bero-
tasuna. Txokolate katiluak eta biz-
kotxo zatiak ageri dira barra gai-
nean. Ane Zabala eta Hedoi Etxarte
–*Suzko Liliak* (Susa, 2008) eta *Sin-
plistik* (Susa, 2012)– emanaldia
prestatzen ari dira. Txokolatea eta
Bizkotxoak ekimenaren bigarren
aldia da honoko hau, aurrekoan
Harkaitz Cano izan zuten hizlari,
eta 100 lagun bildu zituzten *Musika-*

M.G.



Txokolatea eta
Bizkotxoak
kultur ekimenak
Hedoi Etxarte
poetari eskaini
zion bigarren
saioa, otsailaren
3an. *Sinplistik*
liburuaz jardun
zuen.

ren Memoria izenburupean. Gaurko-
ak antzeko trazak ditu. “Une zoro
batek harrapatu gintuen poteo
batean –gure herri honetan gauza
asko ateratzen dira poteoetan–”,
esan digu Landabasok. Haien arte-
ko gauza sortzea zen hasierako
asmoa, baina gero, publikoari atea
irekitzea otu zitzaion.

Pentsatu eta egin. Bilboko Zazpi
kaleetan badira tabernak eta lekuak
kultur ekimenak bultzatzen dituzte-
nak, “eta gureak beste ekimen bat
izan nahi du, Bilboko erdigune
honetan”, Ane Zabalak azaldu
digunez. “Sortzaileak ekartzea da
gure asmoa, baina mugarik jarri
gabe”. Lehenengo biak idazleak
izan dira, baina beste diziplina
batzuetako sortzaileak ere erakarri
nahi dituzte.

Bat dator Landabaso: “Kultur
proposamen ugari dago Bilbon,
baina hoietatik euskaraz direnak
gutxiengo dira. Bestetik, kultur
proposamen hauek asteburura
mugatzen dira askotan, ostegunetik

igandera, eta aste barruan gauza
gutxi daude. Horregatik da gure
proposamena astearteetan”.

Ane Zabala sorkuntza lanak
mugitzeko zailtasunez mintzatu
zait, “gu ere sortzaile garen
momentutik, horretan jardun behar
izan dugu, zorionez edo zoritxa-
rrez”, eta Landabasok erantsi:
“gustuko gauzak ikusteko ezin zara
zain egon, norbaitek ekimen hori
noiz bultzatuko. Ez zegoen modu-
rik Bilbon euskal sortzaileak ikuste-
ko, inork ez baitzuten ekartzen.
Guk egin behar”.

Hauexek dira hurrengo Txokola-
tea eta bizkotxoak ekimenak progra-
matu dituen mintzaldiak: martxo-
aren 5ean, Aiert Goenagak zinemas
eta kulturaz hitz egingo du. Apiri-
lean 9an Ixi Garcia arituko da arte
plastikoen gainean. Maiatzaren 7an
Irati Jimenez, eta ekai-
naren 4ean Mikel Elorza
arituko dira. ■

Myriam Garzia



1 irakurri



2

hautatu

3 erabili



4

eman iritzia

Roquefort gaztako bakterioen sexu jarduera

WWW.OHMYFOOD.FR



JATEN DITUGUN esneki gehienak bakterioei zor dizkiegu; haiei esker bihurtzen da esnea esneki. Ezagun da, bestalde, bakterio batzuek ugalketa sexuala dutela, eta beste batzuek asexuala.

PloS One aldizkarian berriki argitara emandako artikuluaaren arabera, Roquefort gaztaren sortzaile nagusiak, hots, *Penicillium roqueforti* bakterioak, sexu jarduera du. Bitxikeria hutsa dirudienak izugarritzko garrantzia izan dezake gaztaren hobekuntza bidean. Ugalketa asexuala duten bakterioen kasuan mutazioak, oso geldoak izateaz gain, ausazkoak ere badira, eta oster, ugalketa sexuala duten bakterioen kasuan mutazioak azkarrak eta askotan kontrolagarriak dira.

Frantzian, urtero, bi milioi tona Roquefort gazta ekoizten dira. Aktore nagusien ugalketa ohiturak ezagutzeak badu bere garrantzia. ■



ttiki.com/47403

(Gaztelaniaz)

Curiosity-k aurrera jarraitzen du Marten

Curiosity robotak lanean jarraitzen du Martera ailegatuz geroztik. Otsaileko lehen astean, 1,6 zentimetroko diametroa eta 6,4 zentimetroko sakonerako zuloa egin eta horko materiala eskuratu du. Horren azterketak ondorio interesgarriak izango ditu ezbaierik gabe.

ttiki.com/47404

(Gaztelaniaz)

Turistek egindako argazkiak badute balio zientifikoa

OPORRETARA joaten garenean oso ohikoa izaten da han eta hemen eta horri edo hari argazkiak ateratzea. Berriki, Londresko Imperial College-ko Tim Davis ikerlariak marrazo-baleari (*Rhinodon typus*) turistek egindako argazkien interes zientifikoa aztertu du.

Animalia hori topatzea ez da erraza, eta argazkiak egi-tea are gutxiago. Zientzialariek espedizio garestiak antolatu beharko lituzkete haren irudiak lortzeko; turistek utzitako materiala aztertu ondoren, Tim Davisek ondorioztatu du zientziarako oso informazio baliagarria atera daitekeela haietatik.

Gogoan izan, irakurle: zure hurrengo oporraldian zientziaren laguntzaile bilaka zaitezke. ■



WWW.CANCUNRESERVAS.COM



Pintura berezia aireko nitrogeno oxidoak kontrolatzeko

Hirietako kutsadura kaltegarrietakoa nitrogeno oxidoetatik datorkigu. Errekuntza-motor guztietan sortzen dira, baita elektrizitatea sortzeko erregaia darabilten zentraletan ere. Alemaniako ikerlari batzuen arabera, etxeetako hormetan pintura bereziak erabiliz aireko nitrogeno oxido kantitatea murriztu daiteke.

ttiki.com/47405

(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Etxeko señoarak

AURKARIAK AKABATUZ edo uxatuz landareari laguntzen diogu, baina lan horretan bera ere ez da hankamotz. Pozoia, kiratsa... edozein estrategia on du bere burua babesteko. Sortzez bere ohiko ekosistema naturalean irauteko ditu jukutria horiek.

Landare asko ekarriz, eramanez, salduz, hibridatuz, txertatuz eta abarren abarrez ekosistema berri arrotzetan jarri dugu. Guk. Arrotzeneako etxeetara ekarri ditugu eta zentzu on guztiarekin, badaezpada, bere amarruzko

pozoi eta antzekoak ez dituzte bidean galdu... Berezko etxe duten ekosisteman ezagutzen dituzte, guk ez bezala. Ez guk, ez geurek.

Kanpotik ekarritako landareak asmatutako babesak penatzen duenik bada geure ekosisteman. Gero eta ugariagoak diren maskotak, adibidez. Antzeko tratua ematen diegu landareei zein animaliei. Bere artekoa, ordea, nolakoa ote? Katua, txakurra, hudoa, muskerra, hamsterra, papagaia, untxia, dortoka, kameleioia edo dena delako

adiskidea moldatzen al da etxeko landaretzarekin?

Labezomorroa baino itsusia-goa, muturra aita santuarenaren pareko zatarra duen katua badu ezagun batek. Geureak ez bezala, etxe barruan señoara bat bailitzan ibiltzen da hura, aurrera eta atzera, pasieran. Eta, ez du bada koi-taduak ez dakit non irakurri bere etxeko señoari kalte egin diezaiokeen landare baten berri... Eta etxean duela...

Eguberrietan txoro-txoro erabiltzen dugun pazko lorea edo poinsettia (*Euphorbia pulcherrima*) aitatu dit. Baietz, barrunbehetako mina eragin diezaiokeela. Eta nik, lasaitu beharrean itolarritu egin dut; bere etxekoandrea hil dezaketten landareen zerrenda azaltzeari ekin diot.

Ekialdeko zitoria edo azuzena (*Lilium longiflorum*) da bat. Bihotzari eragiten dioten glukosidoak ditu: hasieran gorakoa eta beherakoa ekarriko dizkio, ondoren gogogabetua eta lozorro batean bezala geratuko da, gero giltzurrunen porrota eta bihotzarena datoz.

Etxean dituen landareak ikustera joateko tratua egin dugu, hamaiketako baten truke. Landareak direnak direla, epaia aurreratu diot: bat bera ere ez kendu. Inor hartzera bidaltzez gero, señoara kalera! ■



PAULSWANSEN-CC BY ND



Pazko lorea edo poinsettia (*Euphorbia pulcherrima*).



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Etxe ondoan dugun lur zatitxoan, ondoko soroan jaio zen intxaurrondoa aldatu nuen, orain dela hiru bat urte. Toki desegokian jarri nuen, eta gainera beldur naiz ez ote den asko haziko eta arazoak emango. Jadanik bi metro eta erdi garai da. Kentzekotan nago, baina esango zenidake zein den neguko unerik egokiena, beste toki batean ongi sustraitu dadin?

Mikel Haranburu (Aitzoain)

Kaixo Mikel. Intxaurrondoa ahal den txikiena denean aldatzea komeni da. Sustrai nagusia hausteko aukera asko baita gero. Batzuek alea arbola nahi duten tokian bertan eriten dute... Beraz lehenbailehen aldatu. Negu-neguan eta ilbeheran, aurtengoan urtarrilaren

23tik otsailaren 5era, edo otsailaren 19ko bazkalondotik martxoaren 4a artean.

Ahalik eta sustrai gehienekin atera. Lur harroa, harritsua eskertuko du. Itsasterakoan eta lehen urteko sasoi lehorretan ura erruz eman. ■

Cavendishen herabetasunaren legea

DERBY (INGALATERRA), 1810EKO OTSAILAREN 24A. Henry Cavendish zientzialaria, garaiko Britainia Handiko gizonik abereatsenetakoa, hil zen 78 urte zituela. Bere ondasunak ez zituen bizitza luzean metatu; familiaratik zetozkion. Ama Lady Ann Grey zuen, Kenteko dukearen alaba, eta aita Lord Charles Cavendish, Devonshireko dukearen semea.

Cambridgen hiru urte eman ondoren, Cavendish gazteak titulurik lortu gabe utzi zuen unibertsitate ospetsua. Gerora erakutsi zuenez, gaitasun akademikoak soberan zituen tituluak lortzeko, baina gaitasun sozialek huts egin zioten. Oso lotsatia zen. Horrenbestez, familiako ondasunek nahi adina baliabide eta muturreko herabetasunak nahi adina denbora eman zioten bizitza zientziari eskaintzeko.

Kimikan lehenengoetakoa izan zen, Frantziatik kanpo, Lavoisierren teoria iraultzaileekin bat egiten. Ordura arteko eudiometrorik zehatzena sortu zuen –gasek arnastuak izateko duten egokitasuna neurtzen duen gailua–, eta atmosferako airearen konposizioari buruzko ikerketetan oso emaitza onak lortu zituen, argona oraindik aurkitu gabe zegoen arren. Lurraren dentsitatea ere kalkulatu zuen, urarena baino 5,48 aldiz handiagoa zela ondorioztatu zuen –gaur egun ontzat ematen den datuarekiko diferentzia %1 baino txikiagoa da–. Horri esker Lurraren masa kalkulatu ahal izan zen, eta gerora beste ikerlari batzuei grabitazio konstantearen balioa aurkitzeko bidea zabaldu zien Cavendishen. Elektrizitatearen arloa ere jorratu zuen, eta aurkikuntza garrantzitsuak egin zituen horretan: potentzial elektrikoaren kontzeptua –hark “elektrifikazio maila” esaten zion–, materialen konstante dielektrikoaren, potentzial elektrikoaren eta korrontearen arteko erlazioa...

Kontua da gabezia sozialek ez ziotela lan eskerga hori guztia hedatzen utzi; lan labur gutxi batzuk besterik ez zituen argitaratu, eta liburu bat



Henry Cavendish (1731-1810) ikerlari bikaina baina dibulgatzaile eskasa izan zen.

bera ere ez. Etxeko zerbitzariekin ohar idatzien bidez komunikatzen zen, eta etxeko atzealdeko fatxadan berak bakarrik erabiltzen zuen eskailera bat eraikiarazi zuen, sartu-irten urrietan inorekin topo egitea saihesteko. Hainbatek uste du –Oliver Sacks psikiatra eta neurologo ezagunak, besteak beste– Cavendishen Asperger sindromea zuela. Hala izan ala ez, Cavendishen arazoa muturrekoa zen: potentzia elektrikoa neurtzeko gailu egokirik ezean, eta horiek lortzeko beste gizaki batzuekin harremana izatea eskatzen zuenez, potentzia bere gorputzaren bidez neurtzera iritsi zen; deskargak eragiten zion oinazearen arabera kalkulatu zuen potentzia.

XIX. mendearen amaieran, James Clerk Maxwell fisikariak Cavendishen paperak aztertu zituen, eta hantxe topatu zituen gerora beste batzuek beretutako aurkikuntzak: Richterren proportzio elkarkariaren legea, Ohmen legea, Daltonen presio partzialen legea, eroankortasun elektrikoaren printzipioak –Coulomben legea barne–, Charlesen gasen legea... ■



Arrastoak

Zenbat aita santuk utzi dute kargua orain arte?

BENEDIKTO XVI.A oraindik bizirik dela kargua uzten duen laugarren aita santua dela esan dute komunikabide askok egunotan (Benedikto IX.a, Zelestino V.a eta Gregorio XII.aren ondoren). Baina kontuak ez daude batere garbi.

Badirudi III. mendean San Ponzianok Hipolito antipaparekin batera kargua utzi zuela garai hartako zisma konpondu asmoz. Hainbat adituren arabera, VI. mendean bizantziarrek San Silberio aitasantutza uztera behartu zuten. Eta hurrengo mendean ere bizantziarrek bultzatu omen zuten Martin I.a kargua uztera. 1047an Henrike II.a germaniar enperadoreak Gregorio VI.a kargutik kendu zuen, aitasantutzaren eta Germaniar Inperioaren arteko tirabirak medio.

1804an, Pio VII.a aita santua (beheko irudian) Parisera joan zen Napoleonen koroatzearen karira. Enperadoreak aita santua atxilotzea aginduko zuen beldur, Erromatik atera baino lehen uko-egite agiria sinatu zuen Piok. Baina Bonapartek halako erabakirik hartu ez zuenez, ukoa ez zen sekula indarrean jarri. ■



Ateak itxita, zauriak irekita

2010ean Egunkariako auzipetuak absolbitu egin zituzten. Estatu aparatuek sorturiko ipuin zentzugabeari amaiera eman zion epai hark. Baina duela hamar urteko operazioaren ondorioak agerian daude oraindik: egunkariak itxita segitzen du, tortura eta tratu txarrak ez dira ikertu, eta auzi ekonomikoa epaiketara bidean da.

| URKO APAOLAZA AVILA |

2003KO OTSAILAREN 20AN euskal prentsaren kontra inoiz egin den eraso larrietako bat abiarazi zuen Guardia Zibilak. Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile Juan del Olmoren aginduz, hainbat egoitza arakatu eta *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten. Egunkarian ardurak izan zituzten hamar lagunen etxetan ere sartu ziren, gauez, eta hainbat egunez inkomunikatuta izan ondoren baldintzarik gabe espetxeratu zituzten haietako sei. Tortura salaketak izan ziren –atxilotuetako bat ospitalera eraman behar izan zuten oraindik argitu ez diren arrazoiengatik– eta kezka berehalakoan nagusitu zen.

Egun horietan jazotakoak sekulako eragina izan zuen euskal gizartean, Donostian egin zen manifestazio erraldoiarekin neurtu daiteke jendearen kezka norainokoa. Atxilotuak apurka libre geratu ziren –kasu batzuetan kartzelan hilabete luzeak egin ondoren–. Del Olmo epaileak egunkaria sei hilabetez itxita mantentzeko agindu zuen auto baten bidez. Ez zen gehiago ireki. Hortik hilabete batzuetara, sumarioa sekretupetik atera zenean, muntaia horren guztiaren argudio nagusia zein zen jakin zen: Egunkariak ETArekin konexio ekonomiko omen zuela.

Zenbait medio eta politikari *Euskaldunon Egunkaria* kriminalizatzen hasiak ziren 90eko hamarkadan, ETArekin berripapera zela esanez. 2001ean guardia zibilak euskalgingtzako hainbat enpresa ikertzen hasi



GARIKOTZ GARIALDE / ARGAZKI PRESS

Egunkariaren kontrako operazioak kezka eta larritasuna sortu zuen jendartean.

ziren, lehenago *Egin* ixteko erabiliak izan ziren ETArekin paper batzuk oinarri hartuta. Eginahalak egin zituzten lotura ekonomikoa justifikatzen zuen froga nimitoenaren bila, baita beste operazio polizial bat antolatu ere. 2003ko urrian egunkariaren kudeaketa ekonomikoan parte hartu zuten beste zortzi

lagun atxilotu zituzten. Berriz ere inkomunikazioa, berriz torturaren mamua.

Irakurketa politikoa eginez gero, askoren ustez Espainiako Estatuak ezker abertzaleetik haragoko abertzaletasunari mezua helarazi nahi zion, hain justu Ibarretxe lehendakariak estatutu politiko berrirako plana aurkeztu zuen garai beroan –ETArekin *entorno*-aren kontrako operazio gehiago ere izan ziren, bat nabarmentzearen, AEKren kontrako–. Baina guardia zibilek ez zuten bihi bat ere aurkitu galdeketa eta erregistroetan Egunkaria ETArekin lotzeko. Orduan, konexio

Absoluzio epaiak Juan Del Olmoren instrukzioa ipurdi bistan utzi zuen 2010ean



Auzi ekonomikoak auzipetuak oraindik ez dira zigorretik salbu, epaiketa egiteko arriskua handia baita.

ekonomikoak huts eginik, Del Olmok auzia bitan banandu zuen: auzi nagusia eta auzi ekonomikoa. Auzi Nagusirako dedukzio soilez eraikitako errelatoa jarri zuen instrukzio-epaileak mahai gainean eta zazpi lagun prozesatu zituen: Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Martxelo Otamendi, Xabier Oleaga, Pello Zubiria eta Xabier Alegria.

Auzi horren burugabekeria bistakoa zen arren, urte luzetako gurutz-bidea eta epaiketara arteko prozesu gorabeheratsua jasan behar izan zuten auzipetuek euren errugabetasuna frogatze aldera. 2010eko apirilean Auzitegi Nazionalako Bosgarren Salak absoluzio epaia eman zuen eta Del Olmoren instrukzioa ipurdi bistan utzi zuen, akats larriak eta interpretazio okerrak egin zirela nabarmenduz. Epaia, besteak beste dio, instrukzio epaileak ez zuela Euskaldunon Egunkaria itxi behar. Del Olmok Auzitegi Nazionalan segitzen du ohiko jardunean.

Eta auzi ekonomikoa zer?

Del Olmok sumarioa bitan banatu zuen arren, bi adarrak lotuta joan dira hein handi batean. Bateko ustezko delitu terroristak, besteren ustezko delitu ekonomikoak ere terrorismo bihurtu zituen.

Impasse handi baten ostean,

2007an Del Olmok zortzi lagun prozesatu zituen auzi ekonomikoan: Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Joxe Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Begoña Zubelzu eta Fernando Furundarena. Zehazki, BEZa aldatzea, diru laguntzak lortzeko tirada handitzea eta irregularitasun ekonomiko txikiak egitea leporatzen ziren epaileak. Akusazioaren zigor eskaera desorbitatua da: 13 eta 26 urte arteko kartzela zigorrak eta 21 eta 33 milioi euroko isunak.

Auzi ekonomikoa epaiketa bidean da, fiskalak oraindik ez baitu akusazioa kendu

Auzipetzearekin batera, Del Olmok prozedura laburtuari ekin zion, epaiketa ahalik eta azkarren egiteko. Baina auzi nagusiko absoluzio epaia lehenago kaleratu zen, eta horrek auzi ekonomikoaren norabidea aldatu du. Delitu terroristarik ez dagoenez, Auzitegi Nazionalak ezin ditu delitu ekonomiko arruntak epaitu, eta auzia Gipuzkoako Prohibitza Auzitegiaren esku geratu da.

Auzipetuen defentsek Gipuzkoako Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren txosten bana aurkeztu dituz-

te, iruzur fiskala eta malbertsazioa egon zirela ezeztatzeko. Bestalde, 2011ko abenduan Dignidad y Justicia-k osatutako herri akusazioa auzitik kanpo utzi zuen Gipuzkoako auzitegiak behin betiko, elkartearen helburua “terrorismoarekin loturiko delituak” pertsegitzea dela argudiatuta.

Txosten horiek eskuan, eta herri akusaziorik gabe, fiskalak akusazioa erretiratuko zuela pentsa zitekeen, baina oraindik ez du halakorik egin, eta epaiketa egiteko arrisku handia dago. Besterik da zigor eskaera berak mantenduko ote diren, eta epaiketa egitekotan, auzitegiko 3. zigor salako Carmen Zubimendi magistratuak zein erabaki hartuko duen.

Egunkaria ixtea Estatuari debalde

2010eko absoluzio epaia erabakigarria izan zen arren, *Euskaldunon Egunkaria*arekin gertaturikoa ez da amaitu, eta zauri ugarik irekita segitzen dute. Ondorio judizialak oraindik hor daude, ikusteko baitago auzi ekonomikoak nola bukatuko duen. Bestalde, atxiloen eta auzipetuen sufrimendu pertsonala ez da inolaz ere erreparatu. Nola ahaztu kartzelan izandako egun eta hilabete luzeak? Jasandako torturak eta tratatu txarrak?

Tortura salaketa guztiak artxibatu egin ditu Espainiako justizia adminis-



DANI BLANCO

**Pello
Zubiria
Kamino**



EGUNKARIAKO
ZUZENDARI OHIA

Ez ahaztu 2003ko otso-hila

JUAN JOSE IBARRETXEK Ajuria Eneko jauregian konbidatu gintuenean Malores Etxeberria eta biok kafea hartzera 2003ko martxo hartan, esan genion ez genuela ulertzen zertara zetorren gure pelikula hura. *Euskaldunon Egunkaria* itxi, jende ezagunak horrela mastrakatu... Zer izan zen? Nor eraso edo mehatxatu nahi zuten gu astinduz? Aparte ez zirela egiak gutaz esandakoak, gu ez ginen hain inportanteak, ez zeukaten zertan agertu beharrik hain astazakil, hain militar txetxeniar, hain epaile turko, hain diktadura usaineko agintari. Ala bai?

Hamar urte pasata, 2003ko otsail hartako egia ez dugu ezagutzen. Ez behintzat osorik. Zer izan zen gu atxiloturik ginduzkatela Arantzazu okupatzera zetorren *Guardia Civil* konboi haren kontua, Aranda de Duero atzerako buelta eman zuen espedizio haren istorioa, egiaz gertatu zela konfirmaturik dagoena? Arrasto gutxi azaldu da. Hori bezala izango dira gehiago. Norbaitek inoiz kontatuko du ea norentzako zen gure bizkar ubelduetan idatzitako mezua.

Egiarik ez bada nagusitu, justizia eta kalte-ordaina hain gutxi. Hainbeste lanen fruitu sortutako Egunkaria itxita betirako

Egiarik ez bada nagusitu, justizia eta kalte-ordaina hain gutxi. Hainbeste lanen fruitu sortutako *Egunkaria* itxi betirako, atxilotuen gorputzak, buruak eta irudia hankapean erabili, absoluzioa eta gaur arte.

Espainiako panzerrak ateratzen direlarik kasernatik, zanpatuek garesti pagatutako maniobra borreroentzat dohainik.

Bizi baldin bagara, akaso egunen batean inguratuko zaio batzorderen bateko teknikariren bat kontu haietaz galdezka galdeketatik bueltakoan intzirian ezagutu nuen Iñaki Uriari. Gaur bertan ere beranduegi litzateke atxilotuta geundela arnas-estuka entzuten nuen Luis Goiarentzako, tampax baten erreguka entzunik erotuarazi ninduen Inma Gomilarentzat, beranduegi Martin Ugaldereentzat.

Espetxetik irtenda gero, sarritan egokitu zitzaidan ondoan kafea hartzen Julian *Kurtxus* Irastortza. Esaten nion nire buruari egunen batean etorriko zela norbait gure kontu zaharraz galdezka, berdin parlamentario edo BBCko erreportari, eta esango niola: nik presentatuko dizut bat ezagutu behar duzuna, Gurutze Iantzi emaztea hila du ni egondako leku hartan bertan, hark baditu gauza hobeak zuk jakiteko. Minbi-ziak eraman zuen Irastortza. Aurretik Gurutzeri eta milari moduan, gure ondoren hamar urteotan tortura zerbitzatu diete erretiluan polizia espainiarrek atxilotutako euskaldunei, Inkisizioak zutik dirau XXI.ean.

“Eta hi nola hago?” Eskertuta. Biziri eskertuta, erreka zoloraino iritsi ondoren bigarren aukera eman didalako. Milaka jenderi eskertuta, “Hiltzaile bat bezala” oparitu zigun kantari hari bezala oihua irentsi zuen etxeoandreaki, izen bakar bat ezin eman hamabi ziento isilduta. Denei nago eta gaude familia eta koadrila osoa eskerturik. 2003ko otsail hartan sentitutako beroa ez dugu sekula ahaztuko. ■

trazioak. 2008an, Martxelo Otamendik Estrasburgoko auzitegira jo zuen, Espainian bide guztiak agortu ondoren. Duela lau hilabete kaleratutako epaian, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainia kondenatu zuen Otamendiren tortura kasuak ez iker-tzeagatik eta 24.000 euroko ordainsaria ematera zigortu zuen: “Espainian torturatzea merkea da”, adierazi zuen Otamendik.

Euskal jendarrea ere jasaten ari da Estatuaren itsukeriaren ebakia: *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten, eta itxita segitzen du, Auzitegi Nazionalak esan arren halako neurri baten beharrik ez zela. Estatuari balde atera zaio gainera, kalte-ordainak jasotzeko erreklamazioak atzera bota baitituzte auzitegian. Euskarazko egunkaria sortzeko zenbat jenderen esfortzua zapuztu

ote zuten 2003ko otsail ilun hartan?

Gaur egungo egoera politikoa bestelakoa da, baina Estatuak orain hamar urteko egitura errepresibo guztiak oso osorik mantentzen ditu. Zein berme dugu, gaur edo bihar, beste norbaiti bati berriz ere antzeko sarraski bat egitea bururatzeko bazeaio? ■



«Arabako Errioxako ikasleek euskara ikastea merezi duela uste dute»

Jokin Aiestaran (Zarautz, 1971) itzultzailea eta EHUko DREAM (Donostia Research group on Education and Multilingualism) ikerketa taldeko kidea da. Berezi bi arlotan ari da lanean: hezkuntza eremuko eleaniztasunean eta hizkuntza paisaian. *Elebitasunari eta euskarari buruzko jarrerak Arabako Errioxan*; hori da aurkeztu berri duen doktore tesia. Ikerketaren nondik norakoak ezagutzeko asmoz abiatu dugu solasaldia.

| SAIOA LABAKA |

Zergatik aukeratu duzu Arabako Errioxa?

Antzinatek lurralde elebakarra izan da Arabako Errioxa, eta gaur egun ere euskarak eguneroko bizitzan duen presentzia oso murrizta da. Hala ere, azken urteetan euskarak aurrerabide nabarmena egin du eskualdean; batez ere hezkuntza sistemaren eskutik. Egun, hurrek eta gazteek euskara ikastea aukera dute, eta D eredu indarrez sartu da eskoletan, eskualdeko ikasleen erdiak-edo eredu horretan ikasten baitu. Hori dela eta, hizkuntza egoera berria sortu da eskualdean: gazteak dira eskualdeko euskal hiztunak. Hizkuntzaren ezagutza gero eta handiagoa da, baina erabilera oraindik nahiko mugatua. Interesgarria da komunitate erdaldunean hizkuntza berria nola sartu den aztertzea, hizkuntza biziberritzeko ahaleginen ondorioak ezagutzeko.

Euskararen aldeko komunitatea indartzen ari dela esaterik badago?

Euskararen auziak eztabaida bat baino gehiago piztu du Arabako Errioxan; ikuspegi kontrajarriak nabariak dira. Gaztelaniaren aldeko komunitateak dio euskara Euskal Herriko hizkuntzetako bat dela; ez dela garrantzitsuenena, eta ez dela euskal nortasunaren adierazgarri. Horren aurrean, euskararen aldeko



JOKIN AIESTARANEK UTZIA

Arrue ikerketaz: “Euskararen erabilerak behera egin du nabarmen bigarren hezkuntzako ikasleetan. Baina, nola ikusten dute hori gutzia beraiek?”.

komunitateak nahiaren diskurtsoa garatu du; galdutako hizkuntza berreskuratzeko nahia, euskara eta identitatea lotuz. Hizkuntza berreskuratzeko bidean, funtsezkoa izan da hezkuntza sistema. Hala ere,

eskolak ezagutza maila jakin bat berma badezake ere, horrek ez du esan nahi datozen belaunaldiak automatikoki euskaldunduko direnik. Oso prozesu mantsoak izaten dira. Jarrera aldetik, baina, eskualde-

ko ikasleek gizarte elebidunaren hautua egiten dute etorkizunari begira.

Bi aldi izan ditu ikerketak.

Ikerketaren aztergai nagusiak elebitasunaren eta euskararen inguruko jarrerak izan dira. Era berean, jarra horiek denboran izan dezaketen bilakaera ere aztertu nahi izan dut. Ikerketak bi aldi izan ditu; zortzi urteko denbora tartea utziz bien artean (2001-2009). Lehenengo aldi, ikerketaren testuingurua zehazte aldera, eskualdeko euskalgintzako kideekin, irakasleekin eta gurasoekin, eta gizartean posizio nabarmena zuten pertsonekin hainbat elkarrizketa izan nituen, eta behaketa lana egin nuen; hiru hilabeteko egonaldia egin nuen Arabako Errioxan.

Bestalde, alderdi kuantitatiboari begira, bigarren hezkuntza eta batxilergoko ikasleen jarrerak aztertze asmoz, hiru eskolara jo nuen: Assa ikastolara (Lapuebla de Labarca), San Bizente ikastolara (Oion) eta Samaniego ikastetxera (Guardia); A eta B ereduak eskaintzen dira azken honetan. Ikasleek 14 eta 18 urte bitartean zituzten, eta 232 izan ziren galdesorta osatu zutenak. Bigarren aldi, 2009an, analisi kuantitatiboa egin nuen soilik; antzeko galdesorta erabili nuen, datuak alderatzeko. Kasu horretan, 177 ikasle izan ziren galdesorta osatu zutenak.

Colin Baker elebitasunean aditu denarekin lan egiteko aukera izan zenuen.

Bai, ikerketaren lehen aldi Galese- ra joateko aukera izan nuen, eta Bangor Unibertsitatean ezagutu nuen; bera izan zen tesiaren zuzendaria. Ezaguna da 1992. urtean argitaratu zuen *Attitudes and language* liburua, esaterako. Hizkuntza gutxituen eta elebitasunaren jarreraren inguruan lan handia egin du Bakerrek, eta bere lanetatik abiatuta bideratu ditut Arabako Errioxan erabilitako galdesortak eta itemak. Ikerketan aztertutako aldagai nagusiak elebitasunarekiko eta euskararekiko jarrerak izan dira, eta horiek beste hainbat aldagairekin alderatu dira, hala nola gaitasunaren eta erabileraren inguruko hizkuntza aldagaiekin, EAEko hizkuntza siste-

man indarrean dauden hiru eredu-ekin (A, B eta D) eta bizindarraren, identitatearen eta euskal hiztunekiko harremanaren inguruko aldagai psikosozialekin.

Nolakoak izan dira eskoletan jasotako emaitzak?

Ikasleek, oro har, elebitasunarekiko eta euskararekiko jarrera positiboak azaldu zituzten; 2001ean eta 2009an bildutako datuak antzekoak izan ziren. Elebitasunarekiko jarreretan elebidun bihurtzearen, hizkuntza elkarbizitzaren eta etorkizuna elebiduna izatearen garrantzia nabar-

Hizkuntza jarreretan, A eta D eredu-koen arteko aldea sakondu egin zen 2001etik 2009ra

mentu zuten. Euskararekiko jarre- rei dagokienez, ondoko ideiek atxikimendu handia jaso zuten: eus- kara ikastea merezi duela eta hiz- kuntzaren biziraupena bermatzeko beharrezkoa dela haurrek euskara ikastea. Euskara ikastea denbora alferrik galtzea dela eta antzekoak, aldiz, baztertuak izan ziren. Oro har, ikasleek etorkizun elebidunaren aldeko hautua egiten dute, eta hori bereziki garrantzitsua da euskararen presentzia hain urria den eskual- dean. Datuak baikorrak dira.

Bestalde, hizkuntza eredu-ek elebi- tasunarekiko eta euskararekiko jarre- retan izan lezaketen eragina aztertu nuen. Emaitzen arabera, hizkuntza jarrerak positiboak dira hizkuntza eredu guztietan. Dena den, jarrera negatiboenak A eredu-ko ikasleek agertu zituzten, eta positibo- enak D eredu-koek. Era berean, emaitzetan deigarria da A eta D eredu- en arteko aldea sakondu egin dela 2001etik 2009ra, hizkuntza jarreretan. Hau da, eredu bakoitzak euskara sustatu eta elikatze-ari eman dion garrantzia- ren isla direla, eta alde hori ez dela urteekin murriztu.

Orain gutxi argitaratu dira Arrue ikerketako datuak.

Argi dago ezagutzatik erabilerarako jautzia ematea konplexua dela, gizar-

tearen eragina tarteko; zer esanik ez Arabako Errioxan. DREAM iker- keta taldean datu horien inguruko hausnarketa egitekotan gara. Gure aldetik proposa daitekeena da datu horien osagarri gisa azterketa kuali- tatiboa egitea. Garrantzitsua irudi- tzen zaigu ikasleek horri buruz esa- teko zer daukaten entzutea. Hau da, Arrue ikerketaren arabera, euskar- aren erabilerak behera egiten du nabarmen bigarren hezkuntzan. Baina, nola ikusten dute hori guztia beraiek? Ikasleei galdera horri eran- tzuteko aukera eman behar zaie, eta hori guztia lagungarri gerta daiteke beraiek ere kontzientziatzeko.

Eleaniztasuna eta hezkuntzari begira, eskuarte- an egitasmorik ba al duzue?

Jasone Cenoz, Durk Gorter eta DREAM taldeko beste ikertzaile batzuekin, fokapen eleantiztasuna kontzeptua lantzen ari gara eskoletan. Proiektu honen helburua da hezkuntzaren esparruan gaitasun eleantizak eta hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gaitasuna azter- tzea. Ikuspuntu holistiko batetik, ikasleen hizkuntza erreper- torioa osatzen duten hizkuntza guztiak hartzen ditugu kontuan. Eskolako hizkuntza horiek ebaluatzeko modu alternatiboa aurkitzea da proiektua- ren xedea, bitzita errealeko hizkun- tza gaitasunak eta hizkuntzen erabi- lera oinarri harturik. Proiektu honen abiapuntua eskola testuingu- ruetako hizkuntza aniztasuna da, eta hezkuntza elebidun nahiz eleantiztasunaren eba- luazioarekin lotutako hainbat ikerketa lerro garatzen ari gara. ■



Grabazio argigarri bat eta Amedoren interesak


José Amedok Santi Brouarden heriotza argituko lukeen grabazioa aurkeztu du epaitegietan. Senideek ez diote sinesgarritasunik eman, interes ekonomikoak, eta ez justiziak, mugitzen dutelakoan.

| MARTIN VICIOSO CANO |

LUIS MORCILLO enpresariak hil zuen 1984an Santi Brouard HBko mahaikidea. Hala onartzen du José Amedok aurkeztutako grabazio batzuetan. *El Correo Español* egunkariak aurreratu du albistea, eta bertan dioenez, Bilboko epaitegiak salaketa tramitera eraman du egunotan.

Vocento taldeak paperean plazaratutakoaren arabera, José Amedo polizia ohi eta GALeko kideak hiru grabazio aurkeztu dizkio epaileari. 2011koak dira, eta lehenengoan Morcillok zuzenean azaltzen du berak tirokatu zuela Brouard. Enpresariari hilketaz galdetzean, bularrean lau tiro eman zizkiola erantzuten du. Halaber, Julián Sancristóbal orduko Estatu-ko Segurtasun zuzendari orokorrari egotzi dio errua. Hasieratik hark antolatutako atentatua zela azpimarratzen du, eta hala dio: “Esan dezaket Brouard nik hil nuela eta Sancristobalek agindu zidala”.

Luis Morcillok publikoki ez du sekula onartu bera izan zenik hilketa burutu zuena. Aldiz, bera eta Rafael López Ocaña izan zirela ebartzu zuen epaileak 1990ean, eta 33 urteko kartzela zigorra ezarri zien. Hala ere, horietatik 12 egin zituen espetxean eta libre ateratzen ziren. Amedo bera, oraingoan salaketa jarri duena, absolbitu egin zuten froga faltagatik.



Grabazioan, Luis Morcillok onartzen du Brouardi lau tiro eman zizkiola, eta agindua Estatu-ko Segurtasun zuzendari orokor ohiak eman ziola.

López Ocañak 2005ean Espainiako Telecinco kateari egindako adierazpenetan bere burua eta Morcillorena seinaltatzeaz gain, Sancristobalek ordaindu ziela esan zuen. Beraz, epaitegia aztertzen ari den grabazio berri hauek, ustez, haren testigantzarekin koherenteak dira.

Senideak minduta

Amedok ez du justizia bilatzen, eta bere onurarako soilik ari da, Edur-

ne Brouardek *Berriati* eta EiTBrri azaldu dienez. Familia minduta azaldu da 28 urtean aukera asko egon delako auzia argitze-ko, eta ez du ulertzen orain halako aitopenekin etorri izana. Edurne Brouardek Amedo aspaldi ezagutzen dutela azpimarratu du eta, haien ustez, beti bere interesen arabera aritu da. Grabazioak orain plazaratzeko arrazoiei dagokienez hainbat “hipotesi” dituzte buruan. Ezker Abertzaleko militantearen alabaren ustez, baliteke etekin ekonomikoaren bila ibiltzea, edo PPren interesen mesedetan, foku mediaticoa haiengandik desbideratzeko asmoz.

Nahiz eta familiak dudarik ez duen Amedok esandakoan, ez diote sinesgarritasunik eman nahi. Ez dira haiek izango “bizia ematen diotenak” eta ez dute haren “erritmoan dantza egiteko

asmorik”. Morcillok, Amedok eta Masak, besteak beste, Brouarden heriotzan parte hartze zuzena izan zutela badakitela diote senideek, baina jokoan ez erortzearen haiek ez direla mugituko. Epaileek auzia abiatzeko erabakia hartzen badute, akusazio gisa egongo direla aurreratu dute, “guztia azken muturre-raino” eraman nahi dutelako. ■



Osakidetza euskalduntzeko beste pauso bat

EUSKO LEGEBILTZARRAK Jaurlaritzari eskatu dio 2005-2011 urte bitarteko Osakidetzako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren azterketa egiteko, eta hortik ateratako ondorioetatik aurrera begirako pausoak emateko. Euskararen erabilera sustatzeko egitasmo berriak bi ardatz izango lituzke: hizkuntza eskubideak bermatzea eta kalitatezko osasun zerbitzua eskaintzea. Zehatzago adierazita, lehen mailako arretan euskara bermatzea lehenetsi beharko litzateke, eta batik bat, umeekiko harremanean. EH Bilduk egin du proposamena Legebiltzarrean eta EAJk eta PSE-EEK babestu dute.

Legebiltzarrak lanabes informati-

koak euskaratzeko plana ere eskatu du. Hiru alderdien eskaria da, hiru hilabeteko epean, Osakidetzan erabiltzen diren tresna informatikoak aztertu eta haiek euskaratzeko plana egitea. 2014ko udatik aurrera hasi beharko lukete lanean. Alderdiek adostu duten testuan lanabes informatiko bakarria aipatzen da: Osabide. Tresna hori osasun profesionalak erabiltzen dute gaixoen informazioa biltzeko, besteak beste, historia klinikoak. Gaur egun, gaztelaniaz baino ez dago.

Aitor Montes Aramaioko medikuak Osakidetza euskalduntzeko hainbat eskari bideratu ditu azkenaldian Eusko Jaurlaritzako Osasun



DANI BLANCO

Sailera. Osabide euskaratzea galdegina zuen eta duela gutxi erantzuna jaso ere bai. Informatikako eta Informazio Sistemetakozuzendariordeak adierazi zionez, Osabide-Lehen Mailako Atentzioa IZ gaztelanatik euskarara ekartzea ez zen bidegarria ekonomikoki.

Bahea

Itziar Idiazabalek Gaur 8n esanak:

“Gutziz kontrakoa naiz ereduak desastre bat izan direla edo denentzat eredu bakarrarekin [D eredu] euskalduntzea hobeto lortuko genukeela esaten dutenekin. Hori bai dela atzerapausoa. Gurasoak euskara gehiago eskatzen jarri dituen lege bat altxor bat da eta hortaz ez konturatzea atzerapauso ikaragarria iruditzen zait. Euskarazko ereduetan gauzak ondo egin direlako joan gara jendea erakartzen

eta, munduan hau kontatzen dugunean, artista batzuk garela esaten dute. Zergatik ez denek D eredu? Derrigortu egin behar direlako. Ikastetxe pribatuek eta aberaskumeek osatzen duten A eredu horrekin lan berezia egin behar da, egoera horretan ezjakinagoak direla ohartarazi behar diegu. Konturatzen badira ondo, eta, bestela, ezjakinak izateko eskubidea dute”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Bai, kriminalak

ETXETIK KANPORATZEKO ZORIAN zen Basauriko herritarraren heriotza, hala nola Espainiako Estatuan Mallorcako jubilatutako parearena eta Alacanteko beste pertsonarena, ez dira suizidioak izan. Eta Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan horien aurretik hil diren beste hainbatek eta hainbatek ez dute euren buruz beste egin. Homizidioak izan dira, eta arduradunek izen-abizenak dituzte: politikariak batzuk, bankuetako eta aurrezki kutxetako presidentek besteak. Beraiek dira sistema erailearen kudeatzaileak, ahulenak lanik eta etxerik gabe uzten dituen kapitalismoaren kudeatzaileak, hain zuzen. Hain da zaila egoera, batzuek, etsiak jota, biziarekin amaitzea erabaki baitute. Baina bizi horien kontra tiro egin dutenak kapitalismoaren kudeatzaileak dira. Kapaz dira gure zergetatik jasotako 40.000 milioi euro txertatzeko bankuak salbatzearen, eta aldiz, ez zaie inporta langabezia, pre-

karietatean eta hipoteka ordaindu ezinik dabilen jendea etxerik gabe uztea. Hiltzaileak eta kriminalak dira, eta aurre egin behar diegu. Ezin da justiziarik espero, kapitalismoaren zerbitzura baitago.

Espainiako Estatuko Etxegabetzeak Stop plataformaren bozeramaileak egia borobila esan zion Espainiako Parlamentuan bankuen ordezkariari: “kriminal” deitu zion. Beraiek dira jendea heriotzara bultzatzen dutenak, etxerik gabe uzteko neurri basatiak martxan jarriaz. Eta igualeko kriminal eta kolaboratzaile izango dira politikariak, agintariak eta epaileak, harik eta krisi larri honen erdian etxegabetzeak gelditzeko, zorra etxearen truke kitatzeko eta etxebizitza sozialaren parkea sortzeko gertu ez badaude.

Juan Mari Arregi



Walt Disneyk irakatsi zigun maitatzen ‘Gure lagun Atomoa’

1950eko hamarkadan AEBetako Gobernuak eta errektore nuklearrak mundu osoan saldu nahi zituzten korporazioek irudi operazio handia abiarazi zuten indar atomoaren mesedez eta arriskurik ezaz konbentzitzeko herritarrek, haur eta gaztetxoak bidenabar. Walt Disneyren konpainiak protagonismo berezia izan zuen propaganda hartan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

CAMPANITA, TINKERBELL, LA FÉE Clochette... Disneyren faktorian Peter Pan mitikoa babesten duen iratxo bihurria, mila bider ikusi dugu haur ginenetik. 1960ko hamarkadako telebistan zuri-beltez agertzen zitzaigunean Disneylandeko eskualde magikoak aurkeztzen -*Frontierland, Tomorrowland, Adventureland* eta *Fantasyland*- ez ginen askorik ohartzen neskato niniño hegodun hark erradioaktibitatearen ikurra margotzen zuela.

2012ko azaroan Frantziako *Canal Plusek* Camille Lepomellec errealityatzailearen *Catastrophes nucléaires: Histoires secrètes* dokumentala erakutsi zuen, gaur Internetez ikus daitekeena, energia atomikoaz herritarrek ezagutzen ez dituztenez. Hartatik ohartu ginen asko Walt Disneyk energia atomikoaren propagandan egindako lanaz.

Filmak ordu bete eta 12 minutu daramanean, *offeko* ahotsak kontatzen du 1979ko apirilean Harrisbourgeko zentralako istripuak eragin zuela lehenbiziko ebakuazio nuklearra, amerikar askori zalantzak sorraraziz atomoaren ontasunaz: “Nuklearraren hasieratik, erradiazioek ikaratzten zituzten herritarrek lasaitzeko, gobernuak eta industria- lek hainbat film eginarazi zituzten, eskoletan eta telebistan pasatzeko. Honako hau Walt Disneyk ekoiztu

zuen, 1957an”. Eta gure haurtzaroan mila bider ikusitako *Campanitaren* sarrera famatuaren ostean irekitzen da asteko gai berezia: *Our friend, the Atom*, Gure lagun Atomoa.

Canal Plusek dokumentalean, Disneyren filma erakutsi diete Harrisbourgen Three Mile Islandeko zentralaren 1979ko istripuan etxetik ihesi egin behar izan zuten senar-emazteei. Ondo gogoan dute. “Lehen hezkuntzan erakusten ziguten, zientzian atalean. Pantailan atseginagoa zen liburuan irakurrita baino. Marrazki bizidunegina zen gainera, are atseginagoa”.

Paperezko bertsioa ere baduen arren –gaztelaniaz *Nuestro amigo el átomo* bataiatua– benetan marka utzi zuena filma izan zen. Marrazki bizidunok eskolan ikusi zituzten 1950-1960 hamarkadetakoa hurrek. Gaztelaniazko azpitituluz ere ikus daiteke gaur Internetez.

Ivan Jimenez Montalvok *La fórmula del lápiz* blogean azaldu du *Our friend, the Atom* hain eraginkor zerk egin zuen. “Funanbulista baten gisan, Disneyk asmatu zuen elkartzen entretenimendua eta hedapen zientifikoaren espektakulua; enpresen interesak lotzen pedagogiarekiko arretarekin; masa komunikazioa eta erantzukizun soziala”. Bestela esanda, gerra mundialean balio militarra erakutsi zuen energia ato-

Our Friend, the Atom liburuaren irudietatik aterea dago hau. Telebistarako bestelako itxura eman zioten, askoz beranduago merkaturatutako Aladinen antza handiagoz. Filmean jenioak esango du: “Hemen nire eskuan daukat suaren indarra, atomoa. Zuei emango dizuet”. Argazki txikian Walt Disney bera telebistarako eta eskoletarako prestatutako 45 minutuko saioaren hasieran, atomoaren egitura irudikatzen duen maketa eskuetan. 1957ko filmaren pasarte batean aipatzen zuten erradioaktibitateak laguntzen duela tiroideetako gaitzak sendatzen. Bitxikeria odoltsua: Ian Tomas Ash bukatzen ari den A2 dokumentalak erakusten ditu Japoniako haurrak, Fukushimako erradiazioek tiroideetan kisteak eragin dizkietenak. Trailer minbera Interneten jarri du. *Disney Channel* nuklearzaleak ez dizkie eskainiko lekukotasunok *Fantasyland*en bizitza promesten zaien gure gaztetxoei.

mikoa gero negozio lerro bihurtzea erabaki zuten korporazioei lana txit egoki egin zela.

Disneyk iragartzen zuen aro atomikoak mundua irauli behar zuela brontze aroak eta industrializazioak egin bezala. Etorkizuneko energi iturri nagusia nuklearra izango zen. Bomba atomikoak lehengo leherkari konbentzionalak zaharkituta utzi zituen moduan, indar nuklearrak gaintituko zituen ikatza bezala petrolioak. Nuklearrak kolonizatuko zituen bizitzaren alor guztiak. Energia agortezin, garbi eta... hondakin gabeko batek.

Munstro hiltzailea gure morroi

*Our friend, the Atom*en, *Disneyland* programaren atal guztietan bezala, Walt Disney bera aurkezle, eskuetan harturik atomoaren ikurra: “Atomoan datza gure etorkizuna. Denek nahi dute ulertu nola funtzionatzen duen”.

Jules Verneren *20.000 legoa itsaspean* famatuaren aipamenetik abiatzen da: eleberriko urpekoa kapitainak leherrarazi egin zuen, hura zerabilen energia beste inoren eskuetan eror ez zedin. Gaztetxo guztiak fikzioan ezagutzen duten *Nautilus* Walt Disneyk aurkeztuko du AEBetako armadaren izen bereko submarino atomikoarekin partekatuz. Zer gertatu da tartean?



Our friend, the Atomen zientzi arduraduna den Heins Haber fisika-riak azalduko digu. Ipuinez lagundurik, honek ere, “ohartu baikara gaiak izugarritzko antza duela iratxo-ien istorioekin. Zehazki batekin, 1001 gauak liburuko *Arrantzalea eta jenioa* izenekoarekin”.

Ba omen zen aspaldian arrantzale bat arras pobre bizi zena. Egun batez, sareak behin eta berriro bota ondoren, brontzezko ontzi bat iritsi zitzaion eskuetara. Ahoa estalirik zeukan berunezko tapailuz. Aurkikuntzaz harriturik, arrantzalea ziur dago hain ondo itxitako ontziak zerbait preziatua eduki behar duela.

Arrantzale zaharrak ireki duenean, ontzitik jenio izugarria azalduko zaio. “Hilko zaitut” dio bel-

durgarri, eta arrantzaleak galdeturik zergatik egin behar dion hori, jeinuak arrapostu: “Mende luzez egon naiz preso ontzi honetan. Haserrea handitu zait barruan, aunitz handitu, eta zin egin dut ni askatuko ninduenak hil egin beharko zuela”.

Herioari ihes egiteko, arrantzale erneari bururatuko zaio galdera bat egitea munstroari: “Nola da posible zu bezalako izaki ahaltsua hain ontzi txiki batean sarturik egotea?”. Jenioa are eta haserreago: “Nolaz? Duda egiten duzu nik ontzian berriro sartzeko ahalmenik ba ote dudan?”. Arrantzaleari apustua irabazteko ontziratu denean, hark jenioa preso hartuko du. Erraldoiak onartu arte arrantzalea duela nagusi eta eskatutako gutzia egingo diola.

Horra energia atomikoaren funtsa *Xerezade* lagun Heins Haberrek laburki esplikaturik. Hortik aurrera luzatuko dira mundua aldatu behar duen energiaren azalpenak. Teorian, hasi Demokritok eta askoz beranduago John Dalton, Amadeo Avogadro, Antoine Henri Becquerel, Pierre eta Marie Curie, Albert Einstein eta abarrek egin aitzinamenduetara. Praktikan, errektore nuklear batek nola funtzionatzen duen era oso didaktikoan erakutsiz.

Hiru ordu laurdeneko saioaren bukaeran, General Electric eta multinazional gotorrenekin batera Walt Disneyk haur eta gaztetxoei erakutsi zien mundua milaka errektorez beteko zela, erradiazioek balioko zutela landareen uzta eta animalien produkzioa hobetzeko. Lurrazalean milaka eguzki tiki piztuz.



Our friend, the Atomek ez zion atomoari arriskurik ikusten, ez bazen bidean arma atomikoegi egiten zaien aipamena: Hiroshima eta Nagasaki ikusia zen zein hilkor diren, baina atomo zibilak arras ezberdin jokatuko zuen, jainko menderatua bailitzan fisikari eta ingeniarien eskuetan.

Pedagogiaz mozturrotutako propagandan hondakinik ere ez daukate zentral nuklearrek. Kutsadurarik hain gutxi. Horregatik da hain hilkorra Disneyren *Our friend, the Atom* dokumentala. Energia nuklearra daukaten herrialdeetako jendeegiaren parte handi bat ezkutatu die, justu istripuak ugaritu direnean jendeok nozitu behar dituzten kalteen oinarrian dagoen egia kutsakorra. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

2003ko otsailaren 20ko mamuak

EGUNKARIA duela 10 urte itxi zuten, otsailak 20 zituenean. Garai oso korapilatsua bizi zen orduan euskal gizartean. Lizarra-Garaziko prozesuak porrot egin ondoren, ETAre jarduna gogorra izan zen XXI. mendeko lehen urte haietan, eta Espainiako Estatuaren errepresioa ere bai. PPK eta Jose María Aznarrek zuzendutako gobernu eta pentsamoldeek argi eta ozen adierazten zuten arazo nagusia ez zela ETA, abertzaletasuna baizik.

Ezker abertzalea legez kanpo jarri zen, hainbat erakundetako kideak atxilotuak izan ziren haien jardunagatik, torturaren garai gorenetakoa izan zen, AEKri ere eraso egin zitzaion... Espainian dena zen ETA. Baita ikastolak, MCC, Eroski... euskal izaera zuen edozer izan zitekeen ETA. Arraina urik gabe uztearen teoria anti-terroristak gori-gori ziren Madril. Bai, orain esagerazioa eman dezake, sinesgaitza delako, surrealista, baina Espainian abertzaletasunaren aurkako makartismo giro hark agintzen zuen sasoi hartan, eta testuinguru horretan eman zen *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera, haren hainbat kudeatzaile eta kudeatzaile ohien atxiloketa eta tortura.

Pello Zubiria *Egunkaria*-ren lehen zuzendariak Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean bukatu zuen hil ala bizi, Martxelo Otamendi zuzendariaren malko arteko "arratoiak baino okerrago tratatu gaituzte" hark amorrazioa eta harridura barreiatu zituen Euskal Herri osoan. Iñaki Uria kontseilari ordezkariak urte eta erdi egin zuen espetxean. Atxilotutako guztiek tratatu txarrak jasan zituzten eta haietako asko torturatutak izan ziren. Espainiako auzitegiek atzera bota dituzte tortura salaketak,

baina Estrasburgok ez, eta Otamendiren tortura salaketak ez ikertzeagatik zigortu du Estatuak.

Auzipetu guztiak errugabe zirela aitortu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak 2010ean, zazpi urte geroago. Kalte ordainez tutik ere ez. Barkamenaz eta damutze kontuez zeresanik ez. Torturez ere ez; edo bai, ez zela halakorik izan, ezta hauek ikertzeko zantzurik ere. Areago, lotsaren lotsez itxita beharko lukeen auzi ekonomikoa oraindik zabalik da, espetxe eskerra handiekin gainera.

Oraindik ez dakigu *Egunkaria*-ren itxieraren egun haietan Aranda del Duero inguruan buelta emateko agindua jaso zuen Guardia Zibilaren konboia zertara zihoan Arantzazura. Baina ba omen zihoan. Batek daki noizbait argituko den. Edo auzia bere osotasunean argituko ote den. Zergatik itxi zuten *Egunkaria* eta zergatik hain operazio basati eta baldarra?

Euskal Herrian oso sakon sustraitu da euskara eta euskal kulturaren aurkako eraso izan zela

Hamarkada batzuetan akaso mintzatuko dira artxiboak, edo akaso bake prozesuaren muinean argituko dira kontuok. Euskal Herrian oso sakon sustraitu da euskara eta euskal kulturari egin zitzaizela eraso eta, kontrakorik erakusten ez bada behintzat, hori da euskal historiara pasako dena. Diktaduraz edo demokraziaz jantzia, Espainiaren historian behin eta berriz errepikatzen den irudia da erasoarena. Espainiako pentsa-

mentu politikoan oso sustraitua dago euskara eta euskal kultura arriskutsuak direla bere batasunarentzat. Horregatik, 2003ko hartan guardia zibilez jantzitako eraso, orain, esaterako, Wert legez moztortua etor liteke, finago baina helburu berberaz.

SORTUK bere eratze batzarra egingo du hilaren 23an Iruñean, bere aurrekaria izan den Batasuna legez kanpo utzi zutenetik hamar urtera. Orduan nekez aurreikus zitekeen egungo egoera, baina batzuk, tartean espetxean den Arnaldo Otegi eta PSE-EEko lehendakari hautatu berri den Jesus Egiguren, 2006ko Loiolako prozesuaren oinarriak finkatzen ari ziren. Zutoin haietatik ere badator ezker abertzalearen etxe berri hau, abangoardia armatuaren eragin barik biziko dena. Eta ikasi beharko du mugimendu politiko gisa bakarrik bizitzen, iraganeko abangoardiakeriatan jauzi barik.


Mendebaldeko alderdien bizitza ohikoetan ez erortzeko ahalegin berezia ere egin beharko du, barruko bizi-indarrak etengabe aztertuz eta astinduz, gizarte hau irauli nahi duen edonork egin behar duen moduan, izan alderdi, sindikatu, gizarte mugimendu, erakunde edo hedabide.

Ezker abertzalea erakusten ari da duen moldatze gaitasuna. Zoriturrez, Madril aldean ez da jarrera bera sumatzen, eta horren erakusle da martxoaren 2an Logroñoko espetxera deitutako martxa, ezker abertzalearen birmoldatzean eta, beraz, egungo bake prozesuan giltzarri izan zen boskotearen askatasuna eskatuko duen bilkura. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Donostiako Aquariuma

4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

1



Ekainberri

Ekain berri

3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



euskara finlandiera HIZTEGIA

5 hiztegi opari

www.suomitar.org

3



Hura ez da lekua

Oier Guillan, Asier Sarasola,
Idoia Beratarbide eta
Ander Fernandez

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5



AZKEN IRABAZLEAK (2356. Argia)

EUREKA! 2012 DA14 asteroidea

• Ima Eguen Balanzategi (Elorrio)

ERRITMOA, KAZETARIAREN BATUTA liburua

- Roberto Izaguirre Barruetaña (Bergara)
- Iñaki Korta Larrañaga (Eibar)
- Jose Luis Hormaetxea Alboniga (Bermeo)
- Larrako aek Euskategia (Bilbo)
- Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)

EKAINBERRI

- Guillermo Carreño Kortabitarte (Bilbo)
- Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Urteagenda

- Araitz Jauregi Lejona (Legutio)
- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Iñaki Biain Salaberria (Donostia)
- M Angeles Azpiroz Hartzurietari (Barañain)

MUNDUKO IPUINAK

- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
- Gema Lasa Zinkunegi (Urretxu)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia



Berlito Berxurdi

GASTEIZ

Principial Antzokia

Otsailak 22. 20:30tan



Antolatzailea:



ANTZOKIAK
PROMOTORA
619421153

Laguntzaileak:

kargia



andea



berria



Diario



VITORIA
GASTEIZ
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

Sahmentia: leihatila eta
www.entradas.cajavital.es



CAJAVITAL
Caja de Pensiones
Vitalitas